



# Pil-pilean

TRUKILLOA

Soraluzeko hilabetekaria  
2023ko ekaina - 399 alea

UNAI LARREATEGI  
"EA DENON  
ARTEAN HERRIA  
BIZIBERRITZEKO  
SALTO POLIT BAT  
EMATEN DUGUN"



## PIL-PILEAN 399

2023ko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:  
Juan Fernandez.

### Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Arrate Espilla
- 6 **Begira** Ordua da
- 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 **Argazki bidez** Plaza bete dantzari
- 18 **Erreportajea** Bost biztanleko txakur bat dago herrian
- 24 **Kirola** Haritz Albisua, pilota eta hockeya
- 26 **Kultura** San Andresko jaiak eta herrikoak
- 28 **Sakonean** Jesus Arruabarrena *Nino*
- 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

### IRITZIA

- 3 **Neuretik** Gotzon Elizburu *Norberak badu bere haria korapilo honetan*
- 16 **Gutunak** Deba bailarako etxebizitza sindikatua *Hemen da Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista*
- 16 **Komiki tira**
- 17 **Hausnarketa** Homofobia
- 17 **Puntua** Enara Agirre *Gelditu, amastu, pentsatu*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

### Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**

# Norberak badu bere haria korapilo honetan



GOTZON ELIZBURU BERISTAIN

**H**onezkerok gehientsuenok badakigu aurtengo Frantziako Tourra Euskal Herrian hasiko dela bihar. Hiru egunez gure lurak zeharkatuko dituzte munduko txirrindulari onenek, munduko kultur eta kirol ikuskizunik jarraituenean. Datuak izugarriak dira: mundu osoko 190 herrialdetako biztanleek jarraituko dute zuzenean Tourraren hasiera. 150.000.000 ikusle baino gehiagok ikusiko dute Europa osoan zuzenean. 2500 kazetari etorriko dira Euskal Herrira, 500 hedabiderentzat lana egiteko.

Era berean ezaguna da euskal zalegoak txirrindularien artean duen ospe ona. Zalego sutsua, baina errespetuz jokatzeko duena. Etxeko txirrindulariak zein kanpokoak animatzen dituen, ikurrina eskuan. Hain justu, horixe izan zen Tourraren antolatzaileek Grand Departa Euskal Herrian izango dela iragarri zutenean erabili zuten erreklamo nagusia.

Ez dut inor harrizko Tourra negozio izugarria dela esanda. Eusko Jaurlaritzak ere helburu ekonomikoekin ekarri du hasiera hau Bilbora. Gobernu autonomikoak azken urteetan darabilen estrategiari jarraituz, ekitaldi handi bat kontratatu du turismoa sustatzeko eta Euskadi/Basque Country marka sektore horretan saltzeko. Helikopteroko irudi horiek urrea balio dute. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko txirrindulari federazioek leporatu diote, bertako oinarriko txirrindulari probak bertan behera uzten ari direla, instituzioek egin beharko luketen ekarpena ez dutelako egiten, Tourra ekartzeko 12.000.000 € gastatu dituzten bitartean. Ez zaie arrazoirik falta.

Hala ere, hainbesteko oihartzuna duen ekimena, aukera paregabea ere bada ikuspuntu politikotik. Euskal Herria bere nazio eskubideak zapalduta dituen herria izanda, eskaparate itzela da Tourra. Horregatik uste dut Gure Eskuk abiatu duen kanpaina ezinbestekoa dela. 60.000 ikurrina banatuko ditu hiru etapetan zehar, eta Bidasoako zeharkaldian, herri bat garela aldarrikatuko du, besteak beste.

Zalantzarik ez dago milaka izango garela hiru egun horietan ikurrinak eskuetan errepide bazterretara joango garen zaleak. Baina hau ezin da zaletuen kontua bakarrik izan; herri erronka bilakatu behar dugu, Euskal Herria munduan erakusteko, Europako txoko honetan, bere burua gobernatu nahi duen eta bere etorkizunaz erabaki nahi duen herri txiki bat dagoela aldarrikatzeko.

**BIDASOAKO  
ZEHARKALDIAN, HERRI  
BAT GARELA  
ALDARRIKATUKO DU,  
BESTEAK BESTE**



# “Nire herritik atera behar banu nola nahiko nuke hartzea?”

---

**TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Arrate Espilla (Eibar, 1986) Pil-pileaneko aniztasun teknikaria da eta 2020tik Auzoko egitasmoa kudeatzen du, euskararengandik urrun dauden herritarrek euskal komunitatera gerturatzeko helburuz.

## **Zortzi urte dira Auzoko egitasmoa abiatu zela. Zure ustez zein ekarpen egiten du herrian?**

Herrian bizi diren kultura desberdinetako pertsonak bistaratzen eta denen artean zubiak sortzen laguntzen du. Geroz eta jende gehiago dator kanpotik eta beharrezkoa da denen arteko elkarbizitza eraikitzea, eta transmisio kultural bat egitea, herriko talde eta ekimenekin lotzea... Harrera ona egin eta jendea herrian gustura sentiarazten badugu, pertsona horiek irekiago egongo dira gure hizkuntzarekiko eta kulturarekiko.

Alderantziz ere bai. Duela aste batzuk Munduko postreak ekimena antolatu dugu eta hainbat jatorritako lau herritarrek euren herrialdeko postreak prestatu dituzte. Ikastarora askotariko jendea hurreratu da, bertan elkar ezagutu dugu eta etorkizunerako proposamenak ere sortu dira: San Blas ikastaroa, kokatil tailerra... Ildo berean, jaietan, Munduko arrozen hirugarren edizioa antolatuko dugu. Janaria aitzaki ona da jendea elkarrengana hurreratzeko. Horrela elkar ezagutzen dugu, elkar agurtzen dugu kalean eta poliki-poliki harreman sareak sortzen dira.

## **Familiei zuzendutako ekimenak ere antolatzen dituzue?**

Bai, Auzoko Familiak; familia euskaldunak eta euskara hurbildu nahi dutenak elkartzeko. Azkenaldian, emakume arabiarrek dira gehien hurreratu direnak, umeekin. Familia euskaldunak ezagutu nahi dituzte eta euren umeek euskaraz jolastea beste ume batzuekin.

## **Aipatu izan duzue behar baino familia euskaldun gutxiago hurreratzeko direla.**

Bai eta erreferente euskaldunak behar dituzte, bestela ez dute euskal mundurako sarbiderik. Xabier Aierdik zioen moduan, euskara denengana

zabaldu behar dugu bestela arriskua dago euskara mota jakin bateko familien hizkuntza bihurtzeko.

Euskaraldiak asko lagundu zuen. Emakume arabiar batzuk Belarriprest txapa jantzi zuten eta balio izan zien euskara entzuteko. Askotan atzerritarrei zuzenean gazteleraz egiten diegu eta horrela ez diegu aukerarik ematen euskal mundura iristeko.

## **Euskarak zer presentzia izaten du saioetan?**

Auzoko saioetara hurreratzeko dena da interes bat duelako eta hori jakinda konplizitate handia sortzen da. Horrela, agurrak, zenbakiak eta esaldi laburrak esaten dira euskaraz eta baita euren hizkuntzetan ere, umeek xuxurlari edo interprete lana egiten dute... Oso polita da. Herrian hizkuntza asko daude baina guk ez dakigu ezer eurretaz.

## **Udalari proposatu berri diozue harrera protokolo bat abiatzeko, zergatik?**

Interesgarria delako herrira datozen pertsonen harrera on bat egitea: euren beharren berri jaso, dauden aukeren berri eman... Askotan datozen pertsonak ez dakite ez euskaraz eta ez gazteleraz, ez daude ohituta hemengo bizimodura eta aparte gelditzen dira. Gainera, paperik ez dutenen kasuan, batzuetan ez dira atrebitzen liburutegiko karneta ateratzen ere. Umedun familiek ere konfidantzazko pertsonak behar dituzte beldur horiek gainditu eta umeak apunta daitezen udalekuetan, igerilekuan, musika eskolan... Nik lagundu diet liburutegira, Gurutze Gorrira jana eta erropa behar zutelako... Lan handia dago egiteko.

## **Urteotako jardunean zer ikasi duzu?**

Hona datozen pertsonak bizitza hobeto baten bila datozela baina gero sarritan hemen ez dute lanik topatzen eta pasatzen dituzte bazualdi emozional handiak. Gainerakoan, nik ezagutu dudana jendea oso jende eskuzabala da, humila eta oso eskerronekoa. Oso pertsona ederrak deskubritu ditut. Askotan pentsatzen dut: nik atera behar banu nire herrialdeetik, nola nahiko nuke hartzea noan herrialde horretan?



## Ordua da

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO

Pasatu dira pare bat urte kanpandorreko erlojuaren orratzek ordua zuzen emateari laga ziotenetik, baina badirudi, laster, orratzek ordua zehatz eta zuzen emango dutela. Zapatuan eman zuten horretarako lehen pausoa Izaguirre igeltseritzak eta Asier Amutxastegi eskalatzaileak, kanpandorreraino igo eta bertan erlojuaren bi orratz eta heldulekuak jasota. Dagoeneko, eroan dizkiote materialok errementariari eta hark berriak egingo ditu, altzairu herdoilgaitzezkoak. Beraz, ondo bidean, aste batzuk barru, kanpaien hotsek eta ordulariaren orratzek bat egingo dute berriz eta kanpandorreko erlojuari begiratzten diogunean, zein ordu den jakingo dugu. Bazen ordua.









Unai Larreategi eta Iker Aldazabal elkarri eskua ematen.

# Udalbatza berria

Ekainean hartu zuten kargua udalbatza berria osatuko duten zinegotziek; uztailaren 5ean, berriz, Udal Batzordeak osatzeko eta batzordeburuak izendatzeko osoko bilkura egingo dute

Maiatzaren 28ko hauteskundeetan gehiengo absolutua eskuratu zuen Soralezeko EH Bilduk.

Herritarrek emandako 908 botoei esker, gainditu egin zituen azken lau urteotan Udal Gobernuan egon diren EAJ-PNVren (513 boto) eta PSE-EEren (264 boto) artean eskuratutako 777 botoak.

Berre horrekin eta udalbatza osatuko duten zinegotzi guztiek karguei zin egin ondoren, ekainaren 17an, zapatua Unai Larreategi Asurmendi alkate izendatu zuten, EH Bilduko zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EEko ordezkarien boto zuriekin. Udala eratzeko batzarrean, osoko bilkuren aretoa jendez gainezka izan zen

eta alkategai izan ziren Unai Larreategi eta Iker Aldazabal jeltzalea, sozialistek ez baitzuten hautagairik aurkeztu.

## Elkarlana

Kargua hartu ondoren, Patricia Borinaga sozialistak alkatea zein haren taldea zoriondu eta esan zuen "saiatuko" direla "oposizio konstruktiboa" egiten.

Iker Aldazabal jeltzaleak, berriz, "eskua luzatu" zion gobernu berriari, "kasu honetan oposiziotik, elkarlanean, Soraluzeko eraikitzen jarraitzeko bertako bizilagunen bizi kalitatea eta beharrak asetzeko asmoz". Ondoren, azken agintaldiko lorpenak laburbildu zituen, bi puntutan. Batetik, "udalerrirako lortu diren

baliabide ekonomikoak eta proiektuak"; ur-txorroak, kiroldegiko eguzki panelak, SAPAko pabiloia birgaitzeko proiektuak, Gabolatseko zubi berria, Pascual Churrucako etxebizitzaren proiektua, Olaldeko plan bereziaren aldeko apustua, Ezozibidea Berritzen, eskolako igogailua eta neguan egingo den 1.320 zuhaitzen landaketa aipatu zituen, besteak beste. Bestetik, kudeaketa ekonomikoari dagokionez, gogora ekarri du 2015ean, Udalera sartu zirenean 78.000 euroko gerakina zegoela eta 2023an, berriz, 1.008.498 euroko gerakinarekin laga dutela Udala.

Azkenik, alkate berriak, besteak beste, azpimarratu zuen udal jarduna elkarlanean egin nahi dutela, udal ordezkariak zein bestelako herritarrekin eta eragileekin: "Esan duguna egingo dugu; zeregina inportantea da, baina nola egiten den ere bai. Ahaleginduko gara lan hori elkarrekin egiten; Plazentzian aktore diren guztiekin lan egiten elkarrekin, gure Plazentziatxok aurrerabide bat izango badu hortik eraikiko dugulako. Hori guztia aldarre onarekin. Ahalegina egin behar dugu disfrutatzeko, gozatzeko eta aldarre hori herriak ere bere egin dezan, bizipozerako beste gogo bat".

Segidan, Larreategik alkate modura eskaini duen lehen elkarrizketa irakurgai.

**EGITEN DENARI BEZAIN  
BESTE, EGITEKO  
MODUARI GARRANTZIA  
EMAN ZION ALKATE  
BERRIAK**



# "Heldu nahi diegu benetan inportanteak diren gauzei"

UNAI LARREATEGI ALKATEA

## Zer da alkate modura egin duzun lehen gauza?

Kargua hartu aurreko egunetan, Ikerrekin trasbasea egin nuen eta nire asmoa egunotan hauteskundeetan azaldutako programa ordenatzen hastea zen, baina lehen egunetan ufala etorri zen eta urgentzia horri erantzuten pasatu genuen eguna.

## Hasierako hilabeteotan zeri emango diozu lehen tasuna?

Programa batekin aurkeztu gara eta orain hori garatzeko plan programatikoa osatzea dagokigu. Hasita gaude lan horretan eta ahaleginduko gara oposizioko zinegotziekin konpartitu eta haien ekarpenak ere jasotzen. Uste dugu oso inportantea dela datozen lau urteetarako markoa ezartzea.

## Badago baliabiderik denak garatzeko?

Horiek garatzeko kalkulu oso bat egin beharko da eta kalkulu horrek esango digu ea proiektu horiek garatzeko nahikoa izango dugun herriko baliabideekin edo beste instituzio batzuetako baliabideak topatu, bilatu eta erakarri beharko ditugun. Goazen lehenengo ariketa osoa egitera eta horrek emango digu erantzuna.

## Elkarlanerako beharra azpimarratu zenuen udalbatzarrean. Alkarrekin egitasmoa berreskuratuko duzue?



JUAN FERNANDEZ

Bere garaian, Alkarrekin dinamika bat izan zen. Orain ez dakigu zein forma hartuko duen. Alkarrekin esaten dugunean kogobernantza da. Guk nahi dugu kogobernantzaz lan egitea eta guretzat hori lehenetsuzkoa da. Zinegotzi guztiak, politikari eta teknikariak, politikari eta herritarrak, enpresari, eragile eta abarrak...

## Uztailean eratuko dira batzordeak. Baduzue asmorik aldaketa bat egiteko?

Hasiera batean, ez. Herri batzuetan hasita daude

"PROGRAMA BATEKIN AURKEZTU GARA ETA EGINGO DUGU HORI GARATZEKO PLANA"

ariketak egiten eraginkortasunean irabazteko eta multidisziplinarragoak izango liratekeen batzordeak eratzeke, baina erreflexio txukun bat egin aurretik ez dugu aldaketa irabazteko planteatuko.

## Esan izan duzu EAJ-PSE-EEK estrategia argirik gabe jardun dutela udal gestioan. Orain zein da estrategia?

Gure estrategia programan zentratuko da eta ahalegin berezia egingo dugu egunerokotasunak ez jateko. Horretarako, behar diren plan eta berrantolaketa guztiak egingo ditugu, gure baliabideak ondo antolatu eta benetan inportanteak diren gauzei heltzeko.

## Hala ere, aurreko udal gobernuak hainbat proiektu handi laga ditu konprometituenak: Pascual Churruca, SAPAko parkea... Horiek bere horretan segituko dute?

Guk martxan dauden gauzak ez ditugu frenatuko. Guk ez dugu esan ados ez gaudenik proiektu horiekin. Herriaren onerako izango dira? Bai. Baina ez ote zegoen beste premia handiagorik herrian diru horiek inbertitzeko? Hori da gure kezka, baina behin abiatuta, bukatu daitezela ahalik eta txukun.

## Zerbait gehitu nahi izanez gero...

Eskertu nahiko nuke herritarrek izaten diharduten jarrera, bere premiak azaltzera hurbilduz, patxadaz eta gertutasunez. Gu ere ahaleginduko gara erantzuten eta ea denon artean herria biziberritzeko salto polit bat emateko moduan gauden.

# "Lana topatzen laguntzeko zerbitzua eskaintzen da"

**YOLANDA URZELAI** LAN ORIENTATZAILEA

Lanbidek zerbitzua emateko lokala homologatu du Kalebarrengo lokalean

Kalebarrengo udal bulegoan dauden zerbitzuen artean, Lanbidek lokala homologatu du enplegarritasunarekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzeko. Ekainaren hasieratik dago abian, martitzenetan eta eguenetan 08:00etatik, 15:00etara. Bertaratzeko ez da txandarik hartu behar. Yolanda Urzelai (argazkian) eta Marta Marina lan orientatzaileak daude arreta ematen.

## **Zein zerbitzu eskaintzen dira?**

Helburua da lan bila dabiltzan pertsonen enplegarritasuna hobetzea, zenbait tresna emanez eta zenbait ekintza diseinatu modu pertsonalizatuan, lanean hasteko. Pertsonari egokitutako elkarrizketen bidez, enplegu-bilaketan, lana topatzen lagunduko diegu, informazio eskainiz, CV-a eta aurkezpen-gutuna modurik onenean idazten, enplegua bilatzeko eta norberaren hautagaitza aurkezteko bideak erakutsiz, elkarrizketak prestatuz...

Honako erremintak dauzkate: lana bilatzeko baliabideei buruzko autokontsulta-tresnak; lan-merkaturen informazioa bilatzeko baliabideak; ekipamendu teknologikoa; Internetera konektaturiko ordenagailuak eta lana topatzeko ibilbidean, orientatzailearen laguntza. **Zergatik erabaki da zerbitzu hori Soraluzen ere ematea?**

Langabezia-tasa altuarengatik, %13 (2022ko datua, Eustatetik aterata). Pobrezia-tasa, berriz, Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik dago eta gainera, baliabide gehienak eta enplegua beste udalerrri batzuetan daude. Horrek mugatu egiten ditu joan-etorrietarako ordutegia eta garraioa; zaildu egiten du bizitza pertsonala eta prestakuntzako uztartzea, baita denboraren kudeaketa ere; hemen egotean, berriz, gertuko gutxieneko baliabideak eta erantzuna eskaintzen dira. **Orain arte nora joan behar izaten zuten soraluzetarrek?**



Yolanda Urzelai.

Elgoibarreraino; orain, Lanbiden jasotzen dituzten zerbitzu batzuk herrian bertan jasotzeko aukera dute. **Zenbateraino laguntzen du halako zerbitzu bat herrian izateak ?** Beste udalerrri batzuetan zerbitzu hori eskaintzen izandako esperientziak berretsi digu baliagarria dela enplegua aktiboki bilatzeko, lan-arloko prestakuntza-ibilbideak garatzeko eta beste enplegu-ekintza eta -politika batzuen funtsezko osagarria dela. Herritarrengana informazioa hurbiltzeaz gain, herritarrak motibatuz eta erabakiak hartzen laguntzeko, haien parte-hartzea bultzatzeko eta haien proaktibitatea sustatzeko baliabide lagungarria da.

**"LANBIDEREN ZERBITZU HAU BALIAGARRIA DA ENPLEGUA AKTIBOKI BILATZEKO"**



Roke Akizu soraluzetarra Eusko Legebiltzarrean, atzo, eguna.

# Roke Akizu legebiltzarkide

Atzo, eguna, izan zuen lehen osoko bilkura legebiltzarkide modura, "ilusioz" lan egingo duela dio

EH Bilduko Iker Casanovak eta Maddalen Iriartek Eusko Legebiltzarrean zuten karguei uko egin diete Gipuzkoako zein Bizkaiko Batzar Nagusietan dituzten ardura berriengatik. Haien ordezkoi, Roke Akizu Aizpiri (Soraluze, 1966) eta Diana Urrea Herrera (Kolonia, 1987) izendatu ditu EH Bilduk.

## Lehen sektorea

16 urtez Soraluzen zinegotzi izan den Akizuk eguaztenean hartu zituen kredentzialak eta atzo, eguna, izan zuen lehen osokoa legebiltzarrean.

Justu, 2019-2023ko agintaldiko azken osoko bilkuran, maiatzaren 24an, laga zuen zinegotzi kargua Akizuk, maiatzaren 28ko hauteskundeetan ez baitzen EHBilduren zerrendetan joan. Orain, berriz, erantzukizun handiagoa duen kargua hartu du, "ilusioz" bere esanetan. Lehen sektorearekin, basoekin eta ingurumenarekin lotutako gaiez arduratuko da, lehenagotik ezagun duen Mikel Otero legebiltzarkidearekin. Zeregin hori betetzeko, irakasle lanak zein baserrikoak laga egin beharko ditu behin-behinean.

## Domekan, 100 motozale pasa

Domekan, uztailaren 2an, moto topaketa egingo da herrian, Motoclub Plaentxi elkarteak antolatuta. Goiz partean, 10:00etatik aurrera, izen-ematea egingo dute. Segidan, 11:00etan, moto-ibilbidea egingo dute inguruko errepideetan. Gero, Soraluzera bueltatu eta iaiz moto istripuz hil zen Manex Dominguez lagunari lore eskaintza egingo diote Plazan Barrixan. Eguna borobiltzeko, luntxa egin eta opariak zozkatuko dituzte.

## Botiken koordainketa

Asteotan, Itxaropena Erretiratuen Elkarteak, ko-ordainketa farmazeutikoa (botikena) berreskuratzeko zerbitzua eskaintzen ari dira elkarteko bazkide direnei. Laguntasuna edo aholkularitza behar duena eguenetan, 11:00etatik 12:00ak bitartean joan daiteke bulegora. Honako dokumentazioa eraman beharko da: Nortasun Agiria, osasun txartela, telefono zenbaki bat eta kontu korrante zenbakia.

**Hortz klinika** Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

**Javier Alonso**  
Mediku Estomatologia  
K.Z. 48.000.501

**Katia Guztine**  
Odontologia  
K.Z. 48.001.541

**30 urte baino gehiagoko esperientzia**  
odontologia, proteziak, ortodontzia,  
odontopediatria, ingiriak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko onak (3D):  
ekianerria, orfito eta bala.

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza

Eraklin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreformen • Era gutxietsu igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913

**Kontulan**

Aholkularitza fiskala • Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza • Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai • Outsourcing • Aseguruak

[www.kontulan.com](http://www.kontulan.com)





lazko udalekuetako talde argazkia, azkeneko eguneko jai handiaren amaieran.

# 200 ume inguru udalekuetan

Astlehenean hasi eta bi astez luzatuko dira udalekuak, azken urteotako partaidetzarik handienarekin

Astlehenean, uztailearen 3an hasiko dira Kukumixoren udaleku irekiak eta bi astez, uztailearen 14ra arte luzatuko dira.

Azken urteotako partaidetzarik handiena izango

dute, estreinakoz, HH3ko umeek ere aukera izango dutelako udalekuetan parte hartzeko. Adin horretako 24 umeek eman du izena; gainerakoen artean, berriz, 175 ume animatu da udalekuetara.

Guztira, bada, aurten 200 bat umek hartuko dituzte Soraluzeko kaleak eta txokoak datozen asteotan eta ohikoa dutenez, irteerak ere egingo dituzte, Mutrikuko hondartzara, Elorrioko igerilekuetara eta San Andresera, gaua pasatzera.

### 27 gazte lanean

Umeen lagun, gidari eta zaintzaile ibiliko dira 27 gazte. Batzuk begiraleak eta beste batzuk praktikariak, eta, guztiak koordinatzen ibiliko da Miren Gallastegi Pil-pileaneko Haur eta Gazte sailaren arduraduna.

## Iruya industeari ekin diote

Ekainean, Aranzadiko kideek eta boluntario talde batek, Iruyako trikuharria (Atxolin aurreko laugunearen ondoan) industeko lanei ekin diete. Dagoeneko mugitu dute 2.000 kilo baino gehiago pisatzen dituen harlauza eta azpikoa industen dihardute. Datozen asteetan ere bertan jarraituko dute.





Lehiaketan parte hartu duten gazteak eta irakasleak. A. UNAMUNO



Finalistak, Madrilén. A. UNAMUNO

# Finalistak Audi Creativityn

Institutuko lehen mailako 15 ikaslek Audi auto etxeak antolatzen duen Creativity Challenge lehiaketan parte hartu dute

Institutuko 15 ikasle Audi Creativity Challenge lehiaketa aurkeztu ziren bost taldetan eta taldeetako batek finalera ailegatzea lortu zuen, Alzheimerra ardatz duen "Remembering"

proiektuarekin. Lehiaketan berrikuntza sozialeko proiektuak saritzen dituzte eta hala, ikasturte osoan zehar, institutuko ikasleek ideia bana landu dute, beti ere, "pertsonean eta haien ingurunearen

ongizatea hobetzea" helburu hartuta. Alzheimerra, birziklapena, trukerako sistema soziala, ibaietan kutsadura murrizteko sistema eta etxegabekoentzat "puntu beroak" ezartzeko planteamendua landu dute.

Talde bakoitzak bideo bat aurkeztu behar izan du (ikusgai Plaentxia.eus-en) eta batek, Enpi taldeak, lehiaketako 10 finalisten artean sailkatzea lortu zuen. Madrilén izan ziren, baina ez zuten irabazterik lortu. Saria Silicon Valleyra bidaiatzea zen, bertan proiektua garatzeko.

**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorkaluz) - 943 71 82 49 (Olatz)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogla - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure genakoa horts klinika, punta-puntako teknologiatan lan egiten dugua. Cad Cam sistema bertzikalaz arazatzen dugua.

Elizburu, 3. behea  
SORRALUZE  
Tel.: 943 75 25 67  
Bilag.: 947 42 78 19  
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

Bidelagun euskaltzaletasunean



**aras**



**laibi**  
ELECTRICIDAD



# Dantzaren soka

**TESTUA:** ARIANNE UNAMUNO.

**ARGAZKIAK:** PIL-PILEANEN ARTXIBOA.

Berrogeita hamargarrenez egin da herrian Umeen Euskal Jaia eta, berriz ere, dantzariz bete dira kaleak eta Plaza Zaharra. Halaxe gertatu zen 1967ko abuztuaren 24 hartan, lehen aldiz plaza dantzariz bete zenean, Soraluzeko Ametsa Ikastolak antolatuta, frankismo betean egon arren. Eta berdin gertatu da ondorengo urteetan. Aldatu dira sasoiak, aldatu dira umeak, aldatu txistulariak, aldatu arduradunak, aldatu antolatzaileak, baina euskal dantzak plazan jarraitzen du, dantzarien eta ikusleen gozagarri. Asma dezagula gure dantzak, dantza taldea eta Euskal Jaiak biziberritzen, garai berrietara egokitzen eta jarrai dezala sokak urte askoan!







## GUTUNAK

### Hemen da Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista

#### DEBA BAILARAKO ETXEBIZITZA SINDIKATUA

DEBABARRENA

Ekainaren 10ean Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista aurkeztu genuen Bilbon. Pasa den urtetik martxan dabilen Deba Bailarako Etxebizitza Sindikatu honen barnean kokatzen da. Azken urte hauetan, Euskal Herrian, hainbat etxebizitza sindikatu sortu dira Mugimendu Sozialistaren baitan. Maila lokaletik antolakuntza nazionalera pasatzeko beharraren isla da Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren aurkezpena. Bilbon egindako aurkezpena ez da marka berri baten aurkezpen soila, doako etxebizitza duin eta


unibertsalaren aldeko proposamen politiko oso bat baizik. Alderdi parlamentarioen esanetan, etxegabetzeak iraganeko kontuak dira, baina azken hilabeteen Erandion, Hernanin eta beste hainbat lekutan eman diren etxegabetzeek egia gordina zein den erakutsi dute. Etxegabetzeek gain, etxebizitzaren arazoa larrituz doa: alokairuaren prezioa maximo historikoetan dago EAEn, 3.000 etxebizitzatik gora daude hutsik Nafarroan, etxebizitzen ia % 30 luxuzko etxebizitza da Ipar Euskal Herrian, 700 etxegabetze baino gehiago izan ziren EAEn 2022an, 3.600 lagun inguru bizi dira kale gorrian Euskal Herrian eta etxebizitzen bahitura kasuek ugaritzen jarraitzen dute, besteak beste. Proletariotzaren bizi-

bitartekoak garestitzen ari diren honetan, oinarritzko bizi-bitartekoetara iristen ez direnen kopurua gero eta handiagoa da. Etxebizitza eskubidea sistematikoki ukatua zaio proletariotzari. Honen aurrean, Etxebizitza Sindikatu Sozialistatik antolakuntzarako deia egiten dugu. Kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den etxebizitzaren alde, Estatu Sozialista eraiki.Gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi esindikatu.a. debabailara@gmail.com helbidera edo deitu 671 19 59 24 telefono zenbakira.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA





The background of the entire page is a photograph of a person hiking on a dirt path through a misty forest. The person is wearing a blue jacket and a backpack, and is walking away from the camera. The forest is dense with tall, thin trees, and the ground is covered in green moss and ferns. The mist is thick, creating a soft, ethereal atmosphere.

# **Barruratu zaitez Debabarrean**



# Pilotarien eskutik

ERMUKO FRONTOIEN ETA PILOTARIEN JAIOTETXEEN IBILBIDEA

Ermua tradizio pilotazale handikoa da eta kirol honetako modalitate guztietan jokatu duten ehundik gora profesional eman ditu herriak, batzuen lorratza kale-izendegian bertan ere jasotzen delarik. Herrian zeharreko ibilbide xumea proposatzen dugu eskuz, palaz, zestaz eta erraketaz, “Ermua” izena munduko txoko askotara zabaldu duten gizon-emakume haiek pilotan trebatu ziren frontoiak ezagutuz eta batzuen jaiotetxea kokatuz.

## Sallabenteko frontoia

Herrian sakabanatuta dauden zortzi frontoiei, Sallabentekoan emango diogu hasiera. Zaldibarko lurretan kokatua, auzo horretako umeteriaren bilgune eta jolas-leku izan da beti. Ermitaren hegala ezkerpareta egiteko aprobetxatu zen, jatorrizko leiho ojibalak mantenduz, eta 1955eko San Lorentzo egunean inauguratu zen. Hantxe ekin zion eskuz Santi Agirrek eta eskolatik bueltan sarritan aurkari izaten zuen Charo de Cruz, gerora erraketista izango zena. Bertan zaletu zen ere Ernesto Vieira palista, profesional mailan debutatu duen azken ermuarra.

## Frontoi Barrixa

Herrigunerantz abiatuko gara, Batzokiraino. Ostean frontoia du: 1935an eraikia, Frontoi Barrixa bezala ezagutzen zuten. Astero batzen dira bertan gaur egun ere pala edo esku-pilotan jarduteko, eta bilgune bihurtu da pilota eta hark dakarren lagunartea maite dutenentzat.



Plazako frontoi nagusiaren ondoan, hainbat pilotariren jaiotetxeak. E. GONZÁLEZ

## Elizpeko arkupeak

Izelaietatik behera elizpeko arkupeetara ailegatuko gara: frontoia izan zen hori ere eta plazakoan lekurik ez zegoenean haraxe joaten ziren herriko umeak eta gazteak. Eskuz, barrusetara jokatzeko zuen estimazio handiena. Meza orduetan ez, jakina, ze klas! eta klas!, pilotaren horma-hotsak barruko guztiak aztoratzen zituen.

## Areitotarrak

Gertu, Santiago plazako arkupeen gaineko etxeari pilota usaina da-

**Erdikokalen etxe  
gehienek dute  
pilotarien lorratza:  
puntistak, palistak,  
erraketistak...**

rio: hortxe jaio ziren Angel eta Felix Areitio zesta-puntista entzutetsuak eta Solozabal anaia guztiak: Dani palista eta Miguel, Ignacio eta Alex puntistak. Victor Yarza euron lehengusu pilotari puntista ere, etxe berean biziko zen gerora.

## Erdikokaleko pilotariak

Erdikokalera eramaten gaituzte gure pausuek eta etxe gehienek pilotarien lorratza dute, bertan jaio edo bizi zirelako: 5. peoran Rosendo Garate puntista eta Felix eta Jose Andres Izagirre palistak, 6an Juan Jose Ibarrola, 7an Nikolas Lizundia, 8an Juan Jose Solozabal eta Jose Luis Izagirre eta 10ean Eduardo Unamuno, bostak zesta-puntan aritutakoak. Azkenik 11n Zubizarreta anai-arrebak: Rosario eta Eladia erraketan, Ignazio eta Fernando zestan.



Sallabenteko frontoia. ESTIBALITZ GONZÁLEZ.



Santiago plaza eta Erdikokale. E. G.

### Felix Izagirre "Txekorra"

Erdikokaletik plazara, nahi eta nahi ez Felix Izagirre Zeharbidetik igaro beharra dago, jaio eta bizi izan zen etxe bien artean. Frontisaren ondoan, plaka-eskultoriko batek gogora ekartzen digu "Txekorra", bere sasoiko palistarik distiratsuenetakoa, hantxe hasi zela pilotari hautsak ateratzen. Herriko frontoi nagusiak plazaren zatirik handiena hartzen du eta desafio, partida eta une gogoragarrien testigu izandakoa da, profesional zein afizionatu mailetan.

### Cantabria Zeharbidea

Gertu dago ere Cantabria Zeharbidea, esku-huskan eta palan nabarmendutako Bernardo eta Toribio Garate anaien omenezkoa. Erdigune aldean erraz egin daiteke topo Juan Luis Arrarte, Miguel

Altuna, Eusebio Yarza, Nikolas Mugerza, Miguel Okariz edo Dani Solozabal pilotari puntista ohiekin. Zubiaurre kalean aurrera jarraituz, arbola artean Igartuaneko etxea dugu: Irene Ibaibarriaga erraketistaren bizileku, Rosario, Poli eta Bitxori erraketisten ahizpa eta Bizente puntistaren arreba izandakoa.

### Lau frontoi gehiago

Pasealeku atsegina da Pagorbe ingurutik Ongarai auzora eramaten gaituena, eskola gunera. Ber-

## Liburutegiko "Bertako Bilduma" k pilotarien gaineko argazkiak eta prentsa-artikuluak gordetzen ditu.

tan hiru frontoi topatuko ditugu: Anaitasuna Ikastolan, Ongarai Eskolan eta Ermua BHI Institutuan. Herrira jaitsiz berriro, Arizmendi pilotalekua dugu San Pelaion. 1984an inauguratu zenetik, esku-pilota eta pala dira bertan jokatu diren modalitateak, eta bere instalakuntzak beste kirol batzuetarako ere erabiltzen dira, euriarekin herriko ospakizun ugariaren ategune izateaz gain.

### "Bertako Bilduma"

Ibilbideari amaiera emateko Udal Liburutegira gerturatuko gara: "Bertako Bilduma" dugu bertan, pilotarien gaineko hainbat argazki eta prentsa-artikulu gordetzen dituen. Etxeratu osteko atsedenean on-line ere kontsultatu daiteke Udaleko webgunean, "Ezagutu Ermua" atala klikatuz eta "Tokiko Bilduman" arakatzuz.



**12 millas**  
nautika eskola

Bidaiak, esperientzi ahaztezinak eta titulazioak lortzeko aukerak!!



Nabegaziko lizentzia



Oinarrizko Nabigazio patroli titulazioa



Jolas ontziako patroli titulazioa



Yateko patroli titulazioa



Yateko kapitain titulazioa

www.12millas.es / 609 245 190 / Toletxe kaka, 13 - ELGOIBAR




# "2024rako Oizeko Ibilbide Megalitikoa martxan jartzea aurreikusten dugu"

**JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA** ARKEOLOGOA

2021ean ekin zioten Agiri Geoarkeologia Elkartek eta Mallabiko eta Berrizko Udalek Oiz mendiko proiektuari, Juan Carlos López arkeologoa buru, eta urteotan hainbat aurkikuntza egin dituzte.

## Zenbat monumentuk osatzen dute Oizko estazio megalitikoa?

Proiektu honekin hasi ginenean, Eusko Jaurlaritzak sei monumentu zituen Kultura Ondasun gisa kalifikatuta, baina lehen azterketa batean haietako bat baztertu genuen, ez baitzelako trikuharria baizik eta formazio naturala. Hala ere, 2021ean bertan, cromlech edo harrespil berri bat aurkitu genuen, eta 2022an beste bi topatu genuen, guztiz lurperatuta. Hori dela-eta, gaur egun zortzi monumentu ditugu. Eta baliteke 2024an besteren bat gehiago aurkitzea.

## Monumentu multzo honek berezitasunen bat du?

Oiz mendian Bizkaiko historiaurreko hilobi-sekuentzia megalitiko luzeenetako bat dugu. Lau mila urte inguruko sekuentzia bati buruz hitz egiten ari gara, non hileta-praktiken bilakaera ikus daitekeen: ehorzketa kolektibo eta indibidualak hasi, eta gorpuen errausketaraino. Horrez gain, historiaurrean dauden hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke bertan, eta hori ez da bate-re arrunta: trikuharriak, harres-



Juan Carlos López Quintana.

pil-baratzeak eta iruinari bat. Eta seguruenik badago ere zista bat. Zistak hilobi megalitiko txikiak dira, gorpu bakarra edo bakar batzuk jasotzen zituztenak, eta historiaurreko fase berriago batean eraiki ziren.

## Oraindik ere baduzue zer aztertu, beraz...

Bai, lanean dihardugu, baina hala ere dagoeneko badakigu Piriniotako harrespilen eremutik mendebalderen dauden monumentuak direla hauek. Piriniotako harrespilak eremu oso mugatuan eraiki

ziren: Andorran, Huescan, Nafarroan eta Iparraldean hasi, eta Leizaran eta Oria ibaietaraino. Oizkoa, beraz, eremu horretatik kanpo dago, eta hori ere oso deigarria da.

## Zer dela-eta hasi zineten Oizko ibilbide megalitiko honetan lan egiten?

Alde batetik, Agiri Arkeologia Elkartean buru-belarri ari gara lanean Bizkaiko monumentu megalitikoaren babesa sustatzeko, eta iruditzen zitzaigun Oizeko monumentuak ez zeudela oso ondo zainduta eta identifikatuta. Berrizko Udalak interes berezia zeukan gai honetan, eta 2021ean proiektu bat aurkeztu genuen Berrizko eta Mallabiko Udalak barne hartzen zituena. Gero, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso genuen 2022a eta 2024a bitartean proiektua burutzeko. Honen helburua da Oizko Estazio Megalitikoa babestea eta balio ematea, eta gizartea sentibilizatzea kultura-ondarea zaintzeko beharraz.

## Noiz egongo da bisitatzeko moduan?

Duela urtebete bisita gidatua egin genuen, eta ehun lagunetik gora bildu genituen, baina asmoa da norbanakoak bere kabuz joatea. Horretarako teknologia berrietan oinarritutako baliabide didaktikoak izango dira eskuragarri 2024an, Mallabiko eta Berrizko Udalen eta Agiriren webgunetan. Halaber, monumentu bakoitzaren ondoan QRak jarriko dira, kontakizun historiko zientifikoa entzun eta berrieraikuntza birtualak ikusteko.

**"Oizen historiaurreko hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke, eta hori ez da oso arrunta"**



# Aitzbeltz, magia handiko ondarea

LEIZEA ETA ONDARE PALEONTOLOGIKO ABERATSEKO KOBAZULOA



Aitzbeltz kobazuloko ataria eta sarrerako galeria. MORKAIKO-LEIZARPE TALDEA

Kondairak dio, duela urte asko, gaur hondoa jota dagoen Mendaroko Erentza baserrikoek morroia bidali zutela Munatxo baserri urrunduraino mandatu bat egitera, eta hark, biderik laburrena hartu zuela, Aitzbeltzeko leizetik eta izen bereko kobazulotik gertu pasatzen zen bidexka bat. Leize parera iritsi zenean, txakur handi bat irten ei zitzaion leizetik eta hiru egi handi esateko eskatu. Eta hasi ei zen morroia berbetan, ikaruta: “Eguzkia beroa da, baina sua beroagoa; iletargia argia da, baina eguna argiagoa; eta txakur handiak ikusi ditut, baina zu bestekorik sekula ez”. Hiru egiak esandakoan, txakurrak hagin adar bat eman ei zion. Elezaharraren arabera, morroi hark ez zuen gehiago hitzik egin eta handik gutxira hil zen, Erentza baserrian.

1955ean, Aranzadi zientzia elkarteke espeleologo talde batek ezagutarazi zituen lehenengo

Aitzbeltz leizearen barrunbeak. Juan San Martin eibartarra izan zen leizera sartzen lehenengoa, 1955eko ekainaren 24an, eta urte asko igaro badira ere ordutik, oraindik egin gabe dago barrunbe horren benetako miaketa eta topografia. Nolanahi ere, orduan batutako datuekin, gaur, nekez sinistu daiteke leizetik piztirik irten daitekeenik, 279 metroko sakonerako zuloa delako. Baina asmatutakotik adina izaten dute egitik kondaira askok, eta honek bere badu bere egi zatia. Izan ere, leize hartatik metro gutxira dagoen izen bereko kobazuloan izan ziren, bai, piztiak garai batean, historiaurrean gizakia ez ezik hartzak ere bizi izan zirelako han.

## Aitzbeltz kobazuloa

Barrunbe zabal eta handia da Aitzbeltz kobazuloa eta XX. mendeko lehen hamarkadetan erromeriak ere egin izan zituzten han. Azke-

neko urteotan, tradizio zahar hori berreskuratutako Mendaron Motxaila Elkartekoek eta udaberriaren iritsiera ospatzeko urtero egin ohi dute hara ostera, Motxaila Egunean.

Baina arkeologikoki ere interes handiko gunea da Aitzbeltz. Ondare paleontologiko handia du, bere galerien amaieran dagoen 35 metroko sakonerako leize tranpan harrapatuta. Aitzbeltzeko galerietan hamarnaka hezurtegi daude, eta hango hormetan tamaina guztietako atzamarkek antzeman daitezke. Eta jakina, ondare horri eman zaion balio eskasaren adierazle, grafiti-erregistroak ere badaude, batzuk XIX. mendekoak.

Ezbairik gabe, kontatzeko asko gordetzen du Aitzbeltzek, arkeologoek bakarrik deszifratu ahalko dutena. Bitartean, haitzuloa zaintzea dagokigu bisitariari, etorkizunean kondairak barik Izarraitzeko ibar hauetako iragana kontatzeko bide eman diezagun.

# Gerrak lagatako zaurietan zehar

EIBAR 1931-1945 EKIMENAK GERRA ZIBILAREN ERAGINA AZALERATZEN DU

Eibar estatuko lehen herria izan zen II. Errepublika aldarrikatzen, Gerra Zibileko gerra frontea izan zen 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte, eta bombardaketen ondoren herria berreraiki behar izan zuten. Hori da, hain zuzen ere, Eibar 1931-1945 ekimenak herrian bertan eta mendian dauden ibilbideetan zehar erakusten diguna. Hainbat panel aurkitu ditzakegu azalpenekin eta, bertan agertzen diren QR kodeak eskaneatuz gero, argazkiak eta bideoak ere ikus daitezke (mugikorrerako aplikazioa ere badago).

Jesus Gutierrez historialaria Udalarekin elkarlanean ibili da ibilbideak prestatzen eta berak eman dizkigu ekimenaren nondik norakoak. Ordena kronologikoa jarraitu nahi izanez gero, herrian hasi beharko genuke ibilbidea, Ego Gain kalean. Hor egiten dute bat Alfak, langile autogestioko esperientzia gisa 1920tik kooperatiben proiektu aitzindari izandakoak, eta Untzaga plazak, udaletxearen kokalekua, II. Errepublikaren aldarrikapenaren sinboloa.

Eibarrek hamabost hegazkin-bombardaketa jasan zituen, lehen 1936ko abuztuan eta azkena 1937ko apirilaren 26an. Okerrenak, baina, apirilaren 24koa eta 25koa izan ziren, Mussoliniren legioko italiar abiazioaren eskutik Hitlerren alemaniar Luftwaffearen agindupean.

Ibilaldiak Untzagara jotzen du gero. II. Errepublikaren aldarrikapenaren eta 1934ko urriko iraultzaren berri ematen da bertan,



Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa. EIBARKO UDALA



Informazio panelak jarri dituzte.

eta, besteak beste, udaletxeko fatxadan ikus daitezkeen zuloen jatorria zein den azaltzen da.

San Andres elizan du jarraipena ibilbideak. Udaletxearekin batera, ospe handieneko eraikina da Eibarren. Izan ere, XVI. mendean eraiki zuten eta haren in-

gurumaria oso kaltetuta aterazen gerratik. Elizaren kanpandorreak, herriko eraikin garaiena zenez, Amuategui Batailoiarentzat behatoki lana egin zuen, eta matxinoek, eliza, kanoiez tiro egiteko erreferentziatzat hartu bazuten ere, fatxadak ez zuen kalterik jasan.

Herri barruko ibilbideak Bidebarrieta kalean jarraitzen du, gune hori izan baitzen gerrak eragindako kalteen ondoren aldaketa gehien izan zituena. Izan ere, eraikin apal ugari zegoen kale horretan eta kanoiek edo hegazkinen tiroek eragindako sua oso erraz zabaltzen zen aldameneko etxeetara. Gerra ostean, Bidebarrieta eta inguruko kaleetan aldaketa handiak egon ziren, kale zaharrak eta merkatu plaza betiko galdu ziren, eta, trukean, hirirazatu guztiz ezberdina eraiki zen, baita merkatu plaza berria ere.

Urkizu auzoan Eibarko hiru enpresa sinbolikorekin egiten dugu topo: GAC, BH eta Orbea. Hain zuzen ere, Orbea zegoen tokian egiten da geldialdia eta 1840an armak fabrikatzeko sortu zela aipatzen da. I. Mundu Gerraren amaieraren eta 1929ko krisiaren ondorioz, armen negozioa agortu egin zen eta herriko hainbat enpresa produkzioa dibertsifikatzen hasi ziren. Urkizuko horiek, adibidez, bizikletak egiten hasi ziren. Gerra sasoiari Orbean blindatuak fabrikatzeko sistema antolatu zen matxinoei aurre egiteko. Gainera, Euskal Herriko toki askotatik Errepublikaren defendatzaile ugari heldu ziren armak eskuratzerako, herriko industria aprobetxatuz.

Ibilbideak Errebal kalera jotzen du ondoren, eta han zegoen Agustindar Errekoletoen komentuak italiar eta alemaniar abiazioen

aldetik jasan zuen zigorra aipatzen da, bertan hartu baitzuten aterpe hainbat batailoik.

Herriko ibilbidearekin amaitzeko, gerraostean hirigintzaren aldetik izandako aldaketa sakona azaltzen da Toribio Etxebarria kalean. Berreraikuntza-lanetan, gainera, gerrako preso askok hartu zuten parte.

### **Mendiko lubakiak**

Mendian, Arrate, Santakurutze eta Akondia inguruan gerraren gordintasuna ikus daiteke, eta ibilbidea jarraituz lubakiak bisitatu daitezke. Gainera, Arraten,

## **Bi ibilbide daude gerrak Eibarren laga zuena ezagutzeko: hirian eta mendian**

Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa dago (Arrateko aterpetxean), "lubaki bat errepresentatzen duena", Gutierrezen berbetan.

Interpretazio zentroak gerra sasoiari Eibarren eta inguruaren maketa modernoa, gerrako alde bien uniformeekin jantzitako manikiak, borroka lekuetan erabilitako tresneria, Gerra Zibilaren gordinena gertutik bizi izan zutenen testigantzak biltzen dituen ikus-entzunezkoa eta garai hartako propaganda kartelak biltzen ditu.

Zentroa domeketan egoten da zabalik, 11:30etik 13:30era. Aterpearen inguruko informazio gehiago behar izanez gero, [albergues@ateri.net](mailto:albergues@ateri.net) helbidera idatzi daiteke; eta zentroari buruzko informazioa jasotzeko [kultura@eibar.eus](mailto:kultura@eibar.eus) helbidera.



**BELAUSTEGI**  
— BASERRIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR      943 74 31 02      [WWW.BELAUSTEGI.COM](http://WWW.BELAUSTEGI.COM)



# Ezkutuko altxorrak

MUFOMI FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA ETA HEZUR MUSEOA, BI PERLA

Begi bistakoa dena berehala egi-ten da ezagun, baina altxorrik ederrak ezkutuan gordeta egoten dira sarri, foku guztietatik urruti. Elgoibarren baditugu halakoak, eta horietako bi aipatuko ditugu gaur: Mufomi fosil eta mineralen museoa eta historiaurreari buruzko Hezur Museoa. Artetxe kaleko 28. zenbakian daude, bata bestearen parean, ezkutuan, baina gaur, argitara aterako ditugu.

## Fosilak eta mineralak

1992an zabaldu zuten Mufomi Fosil eta Mineralen museoa Elgoibarren, baina gaur egun oraindik ere ezezaguna da jende askorentzat. 3.600 pieza inguru ditu erakusleihatuan bilduta. Gehienak fosilak dira, 2.300 inguru, eta gainerakoak mineralak. Hemen bertakoak eta kanpokoak, txikiak zein handiak, koloretakoak, hainbat forma eta materialetakoak... Pieza horiez gain, lurpeko faunaren aztarnak, meatzaritzako elementuak, eta animalien eskeleto eta burezurak ere ikus daitezke.

Javi Vargas da museoaren sortzaile eta arima. Ez dago bakarrik baina, afizio bera duen Angel Mari Tobajas espeleologoarekin aritzen baita lanean, museoa bizirik mantentzeko. Azken berrikuntza dela urtebete zabaldu zuten: Arbasoen harpea.

Hiru urteko lanaren ostean, historiaurreko koba baten erreplika egin dute museoaren azpiko aldean. Bost gunetan banatu dute koba, eta bertan jasotako margoen bi-



Europako koba ezagunenetako irudien erreplikak marraztu dituzte koban.

tartez, labar artearen historia bildu dute. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako koba ezagunenetako irudi adierazgarrien kopiak egin dituzte, batzuk tamaina errealean eta besteak, eskalan. Altamira, La Araña, Ekain, Lascaux edo Chauvet kobazuloe-tako irudiak ikus daitezke, animalienak gehienak, baina lehen giza irudien errepresentazioak ere egin dituzte. Orain dela 67.000 urtekoak dira ikus daitezkeen lehen irudiak, eta orain dela 7.000-6.000 urtekoak azkenak. 45 bat metroko luzeera

**Mufomi museo azpiko Arbasoen Harpeak 45 metroko luzeera dauka eta lau metroko altuera**

dauka kobak, eta lau metroko altuera.

Dibulgazio eta pedagogia lana egitea da museoaren helburu nagusia, eta ikastetxeetan ikasitako hainbat gai bertatik bertara eza-gutzeko aukera eskaintzen du, historiako garai desberdinetan zehar bidaia eginez. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara, baina aurrez hitzordua eskatzea komeni da: 608 416 683 / [info@mufomi.org](mailto:info@mufomi.org).

## Hezur Museoa

2019an zabaldu zuten Elgoibarko Hezur Museoa. Museo bitxia da, berezia, eta Euskal Herrian, bakarra. Artetxe kaleko 28. zenbakian dago, nahiko leku ezkutuan, baina barruan dagoenak bistaratzea merezi du. Jose Julian Marquez da museoaren sortzailea eta ar-



Hezur museoko hormak eta sabaiaik koba itxura ematen diote museoari.

duraduna, eta guzti honen oinarrian bere zaletasuna dago. Mimos, pasioz eta maitasunez sortutako obra da Hezur Museoa, eta bertan dauden pieza eta elementu guztiak Marquizek berak eskuz egindakoak dira.

Atetik sartzerakoan historiaurreko museo batean barneratzen da bisitaria. Hormetan eta sabaian animalien irudiak ageri dira, okre koloreko tonu desberdinetan margotuta. Historiaurreko gizakiak kobetan horrelako irudiak marrazteko ohitura zeukan, eta horixe bera irudikatu nahi izan du Marquizek marrazki horiekin. Historiaurreko gizakiak marrazten zuen modu berean egin ditu marrazkiak, museoari kobazulo itxura emateko. Altamira, Ekain, Chauvet edo Lascaux bezalako kobetan aurkitutako margoen erreplikak dira.

Barrura sartu, eta horma-irudiekin batera, bitrina eta apaletan bildutako tresnak ikusten dira begiratu batean. Benetakoak dirudite, baina erreplikak dira. Interneten edo liburuetan aurkitzen ditu benetako piezak, eta haiei buruzko informazioa eta originalen detaile guztiak zaintzen ditu kopiak egiterakoan: materiala, irudiak, tamaina... Ordu askotako lana dago tresna bakoitzaren atzean.

Azken hamar urteotan egin ditu Marquizek tresna gehienak, bai-

## **Denetariko piezak aurki daitezke Hezur Museoan, Brontze garaitik Paleolitikora artekoak**

na arkeologiarako zaletasuna aspaldikoa du. 12 bat urte zituela, Elgoibarko Aizkora izenez ezagutzen den pieza aurkitu zuen Morterika inguruan, amuarrainak arrantzatzen ari zela. Hasieran pentsatu zuen mineral bat zela, malakita hain justu ere, berde kolorekoa delako, baina antzinarako tresnaren baten itxura ere hartu zion, eta hara non ikusi zuen gero anaiaren eskola-liburu batean berak aurkitutako aizkoraren parekoa! Brontze aroko aizkora zen, Kristo aurreko 1.500 urte ingurukoa. Orduan konturatu zen haren balioaz; aurkikuntza garrantzitsua izan zen hura Elgoibarrerako. Gaur egun, originala Euskal Herriko arkeologia gordailuan dago.

Denetariko piezak aurki ditza-kegu, Brontze Garaitik Paleolitiko garaira artekoak; kristo aurreko 1000. urtetik 700.000 urterakoak. Aurkikuntzak egiten dituztenean ohikoena izaten da piezak puskatuta aurkitzea, baina Marquizek haiei buruzko informazioa bildu eta osorik egiten ditu.

Historiaurreko gizakiak nola bizi ziren erakutsi nahi du Marquizek, eta tresnen bidez, haien inguruko azalpen guztiak ematen ditu bisita gidatuetan. Horrez gain, lan-tzean behin, erakustaldiak ere egiten ditu, garai hartako tresnak nola erabiltzen diren erakusteko, eta sua egiten ere irakasten die bisitari, lehen gizakiak erabiltzen zituen teknikak erabilia.

Hezur museoa bisitatzeko hitzordua eskatu behar da: 650 353 566.

# Oreka Art Gallery Soraluzen

IZEN HANDIA DUTEN ARTISTEN ERAKUSKETAK IZATEN DIRA ARTE GALERIAN

Soraluzen, bada Oreka izeneko arte galeria bat, Gabolats kalean, Oreka Art Gallery and Consulting du izena.

Debabarreneko herri txikienetako batean dago kokatuta eta galeria bi aretotan dago banatuta. Hilero, erakusketa berria inauguratzen dute bertan eta bisitari guztiendako dago zabalik, debalde, gainera

Izen handien eta ezagunen artelanak izaten ditu ikusgai, hemen inguruko artistenak zein urrunagokoenak.

## **Azkargorta, Errazu, Zumeta...**

Gertukoen artean, Oreka Art Gallery bertatik bertara ezagutzen dute, adibidez, Ricardo Azkargorta eta

Luis Laskurain bergarrek, Jon Errazu eta Juan Manuel Arruabarrena soraluzetarrek, Vicente Iriondo eibartarrak, Victor Arrizabalaga mañariarrak, Keixeta zestoarrak, Aitor Ruiz de Egiño heraniarrak, Xabier Egaña getxotarrak, Angela Silva gasteiztarrak, Juan Ayesta beasaindarrak zein Usoa Zumeta usurbildarrak.

## **Peñalver, Lleó, Picasso...**

Urrunagokoen artean, berriz, Manolo Oyonarte, Rafael Peñalver, Malu Riaza eta Ivan Araujo madrildarraren margolanak izan dira ikusgai Oreka Arten, Isabela Lleó mallorcarraren eskulturak, Laia Bedos Bonaterra kataluniarraren margolanak zein Barbara Stammel

alemaniarrarenak. Une honetan, Diego Montalbanen obraren mostra eder bat dago ikusgai.

Horiez guztiez aparte, Oreka Art galeriaren sortzaile, bultzatzaile eta kudeatzaile Alberto Ramirezen eskutik, Pablo Picassoren, Eduardo Chillidaren zein Simon Arrieta-aren lanak ere ikusi ahal izan dituzte Soraluzeko arte galeria bisitatu izan dutenek.

## **Artea arnasbide**

Ofiziosz protesigilea bada ere, artea du maite Alberto Ramirezek (Paradas-Sevilla, 1960). Esan izan du berarentzat artea arnasa hartzea dela. Egunero pintatzen du, beraz, obra emankorra du. Adibidez, historiako pintore nagusien bizi-



Manolo Oyonarte Oreka Art galerian.





R. Azkargorta eta A. Ramirez.



Keixeta galerian.



Vicente Iriondo eibartarra.

tzak eta obrak ulertu eta berrin-terpretatzeko ahalegina egin du, Tapiés, Picasso, Estevan Vicente, Palazuelo... Inspirazio iturri modura, berriz, XX. mendeko abangoardia guztiak aintzat hartzen ditu: inpresionistak, Picassoren kubismoa, Kandinski espresionismoa, Malebichen eskola errusiarra...

Baina artista izatetik haratago artearen bultzatzaile sutsua da eta Soraluze arte mugimenduak ekarri eta Soraluze arte bideetan jartzeko helburuarekin, Oreka Art Gallery zabaldu zuen, 2009an.

### Galeriaren altruista

Soraluzeko arte galeriak erakundeen eta hainbat fundazioen laguntza izan zuen, baina haren funtzionamendua erabat altruista zen.

Erakusketen programazioaz, artistak ekartzeaz, haiei arreta

**Koldobika Jauregi,  
Jose Zugasti, Bingen de Pedro, Mikel Lertxundi  
eta Juan Jose Altuna  
izango dira galerian**

emateaz eta erakusketen antolatzeaz Alberto Ramirez arduratu izan da, eta, hori gutxi ez, eta erakusketa guztietarako sarrera debalde izan zen.

Azkenean, zailtasun ekonomikoak zirela eta, bi urte geroago Oreka Art galeriak atek itxi behar izan zituen.

Dena den, hamar urte beranduago, 2021ko martxoan, bigarren aldiz zabaldu zuen Alberto Ramirezek arte galeria, berritutako eta egokitutako lokal batean, oraingoan ere guztia bere eskutik. Galeriararen bigarren etapan, dagoeneko 20 erakusketa pasa izan dira ikusgai.

### Berritasunak 2023-2024an

Etorkizunari dagokionez, indartsu dator 2023-2024 denboraldia. Alberto Ramirezek aurreratutakoaren arabera, dagoeneko hitzartuta ditu Koldobika Jauregi, Jose Zugasti, Mikel Lertxundi, Bingen de Pedro zein Juan Jose Altuna artisten lanekin erakusketak egingo direla. Gainera, berritasunak iragarri ditu datorren denboraldirako, besteak beste, obra publikoren bat ekartzeko aukera, artistaren baten obrak Oreka Arten zein Udalaren erakusketa gelan, bietan ipintzea, baita artelan batzuk kalean ipintzeko aukera izango dela ere.



### TIRO PITXON Jatetxea

Arrate auzoa, 5 EIBAR

**943 20 88 59**

Karta, eguneko menua, bereziak, pertsonalizatuak, ezkontzak, ospakizunak... Terraza eta bista ederrak

Debabarreneko betiko ostataua

Bizkaia Etorbidea, 13 · ERMUA

**943 17 00 19**

[www.melidaostatua.com](http://www.melidaostatua.com)

# Gure ondare arkeologikoa, argitara

HAB HISTORIAURREKO BAILARA

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu Deba bailara". Hitz horiekin aurkeztu zuten martxoan Euskal Kostaldeko Geoparkeko eta Debako Udaleko kideek HAB Historiaurreko Bailara proiektuaren ibilbidea.

Maiatzaren bukaeran egin da, dena den, "aire zabalean sortutako museoa" bertatik bertara ezagutzeko lehen irteera edo bisita gidatu interpretatua. Bertan izan ziren, besteak beste, Aranzadi Zientzia Elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, UPV/EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa, eta Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, hitzordura batutako hamarnaka lagunren aurrean azalpenak ematen.

Gaur-gaurkoz, hiru kilometro eta erdiko ibilbidea eskaintzen zaio bisitariari (ez da zirkularra). Norbere kabuz erraz egiteko moduko bidea da, nahiko laua ia bere osotasunean, eta irisgarria.

Debako portuaren inguruan kokatu dute ibilbidearen hasiera eta, Anes Arrinda pasealekutik abiatuta, zubi alderantz segi eta lau zati edo gune nagusitan banatuta dago ondorengo bidea: gizakia eta itsasoa (itsasadarra), gizakia eta estuarioa (Casa Campo), zubia (bizitza nomada), eta bailara (Sasiolako bidea).

Hondartzatik gertu hasi eta Sasiola ingururaino iristen da, hortaz, eskualdeko ondare arkeologikoa argitara emateko helburuz sortutako proiektuaren lehen fasearen emaitza.



Anes Arrinda pasealekuan kokatu dute ibilbidearen hasiera. IZARO AULESTIARTE

Hainbat euskarri prestatu dituzte informazioa modu erakargarri eta ulergarrian eskaintze aldera, eta indar handia dute, oro har, irudiek: Jose Ignacio Treku sortzaile debarrak, esate baterako, ilustrazio ikusgarriak egin ditu propio ibilbidean ezarri diren panel eta interpretazio guneetarako (ibilbidearen hasieran ezarri dute haren artelanik handiena).

Inguru hauetan aurkitutako apaingarri, seinale eta pieza askotan oinarritutako erreplikak ere ikusgai daude erakusmahaietan, baita fosilen erreplikak ere.

Deba bailaran duela 200.000 eta 15.000 urte bitartean bizi ziren gizakiak, animaliak eta haien arteko harremanak nolakoak ziren ezagu-tarazi nahi dute HABen bitartez. Gure geografian izan diren klima-aldaketek utzitako arrastoak aztertuz, Paleolitoko gizakia- ren bizi-baldintzen eta baliabideen berri eman nahi zaie herritarrei.

"Geologia, klima aldaketak, basoak eta gizakien sorkuntzak zein animalien arrastoak aztertuz, paisaiaren eraldaketaz, eta horrekin batera gizakiaren garapenez jabetuko gara; itsasertza, ibaia, karst pinakularrak eta estuarioaren garrantzia zein den erakutsiz, eta, ondorioz, Debako paisaiari bere balioa emanaz", azaldu dute proiektuaren arduradunek.

Azken urteotan, flyscharekin lotu izan da bereziki Euskal Kostaldeko Geoparkea. Baina "hori baino gehiago da", eta hori erakustera dator, hein handi batean, Historiaurreko Bailara proiektua.

**"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu bailara"**



Adituak azalpenak ematen maiatzeko bisita gidatuan. IZARO AULESTIARTE

Barnealdeko geologiarekin lotuta, hain zuzen, bada beste "altxor" bat inguruotan: bereziki, Deba bailaran dauden kobazuloak eta aztarnategiak. Ermitia, Praileaitz, Langatxo, Iruroin... dira horren adibide. Asier Hilariok azaldu bezala, "Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan, hoguei bat, eta Deba da erdigunea. Hortaz, datu

asko ditugu aztertzeko. Eboluzioa irakurtzeko aukera ematen digu. Oso aukera ona da leku bakar batean historiaurrea ezagutzeko".

**Proiektu oso baten lehen fasea**  
Hainbat urtetako elkarlanaren emaitza da zientzia, artea eta komunikazioa uztartzen dituen HAB proiektua eta erakunde ezberdinen babesa du. Besteak beste, Aran-

## "Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan eta Deba da erdigunea"

zadi elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa eta Asier Gomez paleontologoa, Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, Gordailua eta Bizkaiko Arkeologi Museoa ere bidelagun izan dituzte, haien zuzendaritza zientifikoa eta aholkuak aintzat hartuta landu baita egitasmoa.

Dena den, proiektu oso baten lehen fasea baino ez da orain arte egin den esku-hartzea eta jarrai-pena ematea aurreikusten dute. Oraingoz, Sasiolako begiratokian amaitzen da ibilbidea, eta Praileaitz eta Ermitiako haitzuloak daude han inguruan, bata bestearengandik oso gertu; bada, Praileaitz ingurua museo bihurtu eta Ermitian bisita gidatuak egitea da asmoa.

Haur, gazte eta helduentzako **surf ikastaroak**, hastapenetik hasi eta hobekuntzaraino. Maila guztietarako **materialaren alokairua** eta **aholkularitza profesionala**.

Hondartza kalea 20 - DEBA  
688 743 863  
eskola@yakosurf.com  
denda@yakosurf.com



# Amonite erraldoien gordeleku

MUTRIKUKO NAUTILUS IKASGUNE GEOLOGIKOA

Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean kokatuta, ageri-ageriko eta ezkutuko altxorrez betetako ingurune natural aparta dauka Mutrikuk; horren lekuko dira flysch beltza bezalako eremuak. Milioika urte atzera egin eta ingurune-ko urruneko iraganari, jatorriari eta eraketari buruzko jakin-mina ase nahi dutenek Nautilus Ikasgune Geologikoan daukate horretarako aukera aproposa.

Ehunka bisitari erakartzen ditu urtero museoak eta, aretoa txikia bada ere, ez da nolana hiko bertan ikusgai dagoen altxorra: euskal kostaldearen zein Lur planetaren iraganik urrunena ulertzeko ezinbesteko bihurtu den fosil bilduma zabal bat dago bertan.

Amoniteek duten tamaina, kalitatea eta dibertsitatea kontuan hartuta, gainera, literatura zientifikoan ezagutzen den bilduma handienetarikoa bat da Nautilusekoa.

Oso berezi egiten duen beste balio erantsi bat ere badauka bildumak, duela milioika urte itsasoan jaun eta jabe ziren izaki haien fosilak Mutrikuko zazpi hondartzen inguruetakoa labarretan jasotakoak baitira.

Aurkikuntza horren arduradunak Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteak dira. Bikoteak, flysch beltzean egindako 40 urteko etengabeko lanean, 150 fosil inguru berreskuratatu ditu. Material fosil horiekin, mundu mailako garrantzia duen bilduma paleontologikoa osatu dute.

Nautilus Mutrikuko Interpretazio Geologiko Zentroa ezagutzeko



Amonite ikusgarriek osatzen dute Nautiluseko bilduma. MUTRIKUKO UDALA

bisita eskaintza zabalago dago uda sasoi honetan; bakarka zein taldeka ikus daitezke gunea, eta barne bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte ([www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) webgunean ikusgai dago informazio guztia).

## **Ikasitakoa hurbilgotik ezagutzen**

Bestalde, Ikasgune Geologikoko esperientzia osatu nahi dutenek *Nautilus*, *flyscheko fosilak* bisita egiteko aukera ere badute. Geoparkeak antolatutako bisita gidatu horren baitan, lehenik, ikasgunea ezagutzen da eta, ondoren, aretoan ikusgai dauden fosilak

## **Munduan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetarikoa bat da**

aurkitu zituzten itsaslabar basatiak ikusteko itsas irteera bat ere eskaintzen dute.

Mutrikuko portuan itsasontzia hartuta, aretoan ikasitakoa eta harkaitzetan dagoen ondare geologiko horren gako guztiak hurbilgotik ezagutzeko parada izango dute, hortaz, bisitariak. Saturraran hondartzaraino joango dira, kostalde honetako flysch beltz berezia azaleratzen den lekura, hain zuzen, eta zazpi hondartzen gune ezkutuko horretan hainbat sekretu ezagutzeko aukera izango dute. Inguru horretan berreskuratatu zituzten amonite erraldoiak zehazki non aurkitu zituzten erakustez gain, besteak beste, Bizkaiko Golkoa nola zabaldu zen ere azaldu ohi zaie bisitariei.

*Nautilus*, *flyscheko fosilak* bisita gidatuei buruzko informazio gehiagorako [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) atarira jo daitezke.

# AGENDA

## DEBA

Uztailak 1	20:00	Hitzez Hitz Ikuskizuna	Musika, dantza, bertsoak	Zumardiko karpan
Uzt. 5, 12, 19, 26	19:00	"Marea gora" hitzaldi zikloa	Hitzaldiak	Kultur Elkartean
Uztailak 7	22:00	Bertso saioa: Oihane Perea, Miren Artetxe, Joanes Illarregi, Amets Arzallus	Bertsolaritza	Plaza Zaharrean
Uztailak 11	19:00	Ai Zapotxin! pailazoa	Ikuskizuna	Kultur Elkartean
Uztailak 14	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uzt. 19-23		Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 21	22:00	"Tonbola" antzerkia	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 28	22:00	Ghau	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Abuztuak 6-10		Itziarko Kopraixak	Jaiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18		San Roke jaiak	Jaiak	Herri osoan zehar

## EIBAR

Uztailak 2	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 4-5-6	4 eta 6: 22:30 5ean: 20:00	Ikus-entzunezkoen astea	Ikus-entzunezkoak	San Andres elizako klastroan
Uztailak 7	20:00	Zip trio	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 7	20:30	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 7, 8, 9, 14		Amaña auzoko jaiak	Jaiak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10		Lambretta Eibar XVII. Topaketa		
Uztailak 9	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	Amaña auzoan
Abuztuak 3, 10, 18, 25	22:00	Zinema Kalean	Zinea	Untzagan
Abuztuak 15		Andra Mari jaiak	Jaiak	Azitain auzoan

## ELGOIBAR

Uztailak 1-2		Idotorbeko Jaiak	Jaiak	Idotorben
Uztailak 7-9		Urazandiko jaiak	Jaiak	Urazandi auzoan
Uztailak 21	22:30	Nazioarteko Folklore Jaialdia	Dantza	Maalako parkean
Uztailak 22	22:30	'Ilunpetik argira' Verdini dantza taldea	Dokumentala / Dantza	Maalako parkean
Uztailak 28-29		Azkue auzoko jaiak	Jaiak	Azkue auzoan
Abuztuak 6	Goizean	Santumotz Eguna	Jaiak	Santumotz lautadan
Abuztuak 5		Sallobente Jaiak	Jaiak	Sallobente auzoan
Abuztuak 23-28		San Bartolome Jaiak	Jaiak	Herrian zehar

## ERMUA

Ek. 30 eta uzt. 1	17:00-22:00/04:00	XV. Elektrojaia	Musika	Martxoaren 8a plazan eta Betiondon
Uztailak 5-9		Sallabente auzoko jaiak	Jaiak	Sallabente auzoan
Uztailak 14	23:00	Sir Aligator's Company	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 15	23:30	Merina Gris eta Nogen	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	19:30	Goazeneko kideekin karaokea	Musika	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	20:30	Bertso jaialdia	Bertso saioa	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 18	22:30	Nhil	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 22	23:30	Álvaro de Luna	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 23	20:30	Anari	Kontzertua	Elizako arkupeetan
Uztailak 24-27		Santixau jaiak	Jaiak	Herriko txoko ezberdinetan

## MALLABIA

Uztailak 1-2	Nesken frontenis txapelketa. Bikoteka eta banaka.	Kirol txapelketa	Herriko eta eskolako frontoietan
Abuztuak 14-16	Andra Mari jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuaren 31n	San Erroman jaiak	Jaiak	Zengotita auzoan

## MENDARO

Ekainak 30	19:00	Gararock parkean: Amorante, Bikustik eta The Brian Valeta movement	Kontzertua	Herriko Enparantzan
Uztailak 14, 15, 16		Garagardo azoka	Jaia	San Agustin kulturgunean
Uztailak 19		Jazz Eguna	Kontzertua	Herriko gune desberdinetan
Uztailak 22-26		Santana Jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15		Andra Mari Jaiak	Jaiak	Azpilgoetan

## MUTRIKU

Uztailak 1	23:00	Mutrikuko Musika Banda	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 8	23:00	Akordeoi taldea eta Madalen abesbatza	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 15	23:00	Gure Ametsa dantza taldea	Dantza	Goiko plaza
Uztailak 21-25		Malen jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Uztailak 22-24		Mater museo ontzia	Bisita	Portuan
Uztailak 28-31		Euskal Bateleroen eguna		
Uztailak 29	22:30	Mariachi Imperial	Kontzertua	Goiko plaza
Abuztuak 2, 9, 16	22:00	Aire libreko zinema	Zinema	Zabel plaza
Abuztuak 5	22:30	Mikel Urdangarin	Kontzertua	Goiko plaza

## SORALUZE

Ekainak 28	19:00	Encarnación Bermúdez	Argazki erakusketa	Oreka Art Gallery
Uztailak 2	10:00	Moto Club Plaentxi	Moto topaketa	Herrian
Uztailak 16-18		San Andresko jaiak	Jaiak	San Andres auzoa
Uztailak 22-26		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15-17		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar



# DOLMENEN IBILBIDEA

**BISITA GIDATUAK**  
 Uztailak 16, igandea (euskeraz)  
 Uztailak 23, igandea (gaztelania)  
 Abuztuak 17, osteguna (gaztelania)  
 10:00etan Karakateko aparkalekuan

**izen-ematea**



**657 794 677**













## HAUSNARKETA

**Homofobia**

Kezkatzen zaitu azkenaldian eraso eta diskurtso homofobikoek gora egiteak? Norbanako moduan zer egin sexu askatasunaren alde?



MARI CALLEJA

"Bai, ematen du txarrera goazela. Guretzako normala da bakoitzak nahi duen pertsonarekin bizitzea baina oraindik badago jendea errespetatzen ez duena eta norbait pasatzen bada, esan egin behar zaio: 'Aizu! Niri horrela ez nago gustura!'".



IONE OREGI

"Kezkatzen nau, pertsonen eskubideen eta askatasunaren kontra doazelako. Beldurtzen nau pentsatzeak inguru zabalago batzuetan beldurra pasa dezakedala. Uste dut bisualizatzea oso inportatea dela eta ez onartzea errespetu faltarik txikiena ere".



PEDRO ETXANIZ

"Horixe kezkatzen nauela. Somatzen dut bazterketa handitzen, batez ere, jende gaztearen artean. Ez dut ikusten errespeturik. Mentalitate hori etxean transmititzen da eta iraun egiten du. Kaka zahar guzti horri aurre egin behar diogu".



SANTI RASCON

"Bai, asko arduratzen nau. Sexuak librea izan behar du. Gaztetan nahikoa derrigortuta egon ginen elizarekin eta bizi izan genuen zer den askatasunik eza. ETxeko heziketa oso garrantzitsua da eta ez onartzea txutxumutxuak eta komentarioa".

## PUNTUA



ENARA AGIRRE

**Gelditu, arnastu, pentsatu**

**U**meak esnatu, prestatu eta eskolara eramandakoan zuzenean kotxea hartuta lanera. Amaitu ostean berriro umeak, piztina, musika eskola, erosketak, afariak.... Eguneroko errutina zoro hau zenbat eta zenbat gurasok egiten dugun!

Zoroa bada ere gehienok guztiz normalizatuta ditugu bi eta hiru jardunaldiko lan egunak eta urte osoan zehar horrela jarraitzen dugu batetik bestera, beste erremediorik gabe. Baina horrek ez du esan nahi "zoroa" ez denik eta horrela ibiltzeak prezio bat ez duenik.

Aspaldi honetan behingoz erritmoa jaisteko aukera izan dut, gorputzak gelditzea eskatuta eta erdi behartuta bada ere, eta benetako aurkikuntza izan da. Mantsoago ibili eta erabakiak behin baino gehiagotan pentsatu ostean hartzeko parada izan dut, urte osoan zehar ezinezko izaten dena. Gelditu, arnastu eta pentsatzeko aukera izatea, horra hor eguneroko zoroak debekatzen digun beharra luxu bihurtuta.

Orain udara ate joka daukagula ea posible daukagun momentu batez, behintzat, guretako tarte bat hartzea eta hel diezaiegun: gelditu, arnastu, pentsatu.



# Bost biztanleko txakur bat dago herrian

Azken urteotan, ugaritu egin da jendeak duen maskota kopurua; kalean dabiltzanez, gehien ikusten eta ezagutzen direnak txakurrak dira; 2000. urtetik hona hirukoiztu egin da haien kopurua Euskal Autonomia Erkidegoan, 2022ko datuen arabera, sei biztanleko txakur bat dago, Soraluzen, bost biztanleko bat

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Goretti Goiogana, Eneka Ezenarro, Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea eta Ubane Madera**.

Soraluzen, gero eta txakur gehiago daude. Uztaileko datuen arabera, 729 txakur daude herrian erregistratuta. Horiez aparte, badira kanpoan erregistratu eta Soraluzen bizi diren txakurrak ere, eta seguru asko, erregistratu bakorik ere egongo da. Beraz, pentsatzekoa da kopurua oraindik altuagoa dela.

729 txakur horietatik 20 zerrenda berezi batean daude, arriskutsuak izan daitezkeen txakurren zerrendan. Kasu horretan, besteak beste, txakur horiek lizentzia behar dute eta haien jabeek ere bai, txakurra paseatzeko lizentzia.

## Umeak baino txakur gehiago

Orokorrean, 729 txakur egotea datu deigarria da, asko direlako. Kopuruak are altuagoa dirudi konparazio modura Soraluzen duden umeak aintzat hartzen baditugu, 0-14 urte bitarteko 488 ume, eta adina 19 urtera arte luzatuz gero, 714 ume-gazte daude.

## Izenak: ohikoak eta ezohikoak

Denetarikoz izenak izaten dituzte txakurrek. Soraluzen, ohikoenak edo gehien errepikatzen direnak dira Kira, Argi, Thor, Luna eta Laika.

Osterantzekoan artean, berriz, badaude izen klasikoak dituztenak, Lagun, Oker zein Jai modukoak. Izen benetan bitxiak dituztenak ere badaude, batzuk abizen eta guzti. Batzuk aipatzearen: Gino, Kiski, Luki, Noel de Parayas, Mel Crazy Jane, A King of Magik, India de Enfasis, Lord Byron, Napoleon, Komo tú edo Ania Iturretze. Izenen kasuan, txakurren arrazaren arabera izen "aproposak" aurki daitezke Interneten.

**Txakurra pertsonak baino maiteago**

Txakurrek (edo bestelako maskotek) konpainia egiten dute, maitasuna eta babesa ematen dute, zaintza eskatzen dute eta jolaserako lagun bihurtzen dira. Batik bat, arrazoi horiexengatik hartzen dituzte pertsonak txakurrak etxeetan.

Baina horrez guztiaz aparte, demostratuta dago txakurrak osasunerako ere onak direla. Ariketa fisikoa egiteko, irteteko eta gizarteratzeko aukerak areagotzeaz aparte, maskotekin erregulartasunez ibiltzeak edo jolasteak presio arteriala, kolesterol-mailak eta triglizerido-mailak gutxitu ditzake. Maskotek bakardadea eta depresioa kontrolatzen lagun dezakete, konpainia eginez. Gainera, txakurren kasuan, beste maskota batzuk baino enpatikoagoak dira gizakiekiko. Txakur-jabe askok zalantza izpirik

## Animalien harrerarako zentroa

Debarrenean, Mankomunitateak badu Animalien Harrerarako eta Ongizaterako Zentroa. Eibarren dago, Elgetarako bidean. Txakurrak zein katuak artatzen dituzte, galdutakoak jabeari bueltatu edo adopzioan eman jaberik ez dutenak. Horrez gain, usok ere jasotzen dituzte. Bi langile daude bertan, Roberto Sologaiostoa albaitaria eta teknikaria.

**Adopzioan emateko**

Txakurrei dagokienez, txakur-bilketa zerbitzua eskaintzen dute asteleheneretik barikura 08:00etatik 19:00etara, jendeari arreta, berriz, 19:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 08:00etatik 14:00etara. Hortik aurrerakoa, astelehenera arte, larrialdi zerbitzua da. Une honetan, lau txakur dituzte bertan. Bi adopzioan emateko eta bi judizializatutakoak (epaiaren zain, ustezko tratu txarregatik jabeari erretiratutakoak).

Roberto Sologaiostoa albaitariak kontatutakoaren



Harrera zentroaren instalazioak.

arabera, urtean, batez beste, 125 bat txakur gestionatzen dituzte. Gehienak galdutakoak dira, "baina txiparekin identifikatu eta zuzenean bueltatzen zaizkie jabeei. Gutxi dira Eibarko zentrotik pasatzen direnak", kontatu du Sologaiostoa. Adopzioari dagokionez, berriz, Sologaiostoa esan duenez, Debarreneko animalien zentroan, Marcan Huella elkartearekin dihardute elkarlanean eta urtean, batez beste, 16 txakur adopzioan

ematea lortzen dute, "meritua da hori, ezin dira txakurren %100ak atera", dio albaitariak. Azken urteotan, herrietan ikusi den txakurren gorakada, berriz, Sologaiostoa berak ere atzeman du orain gehiago daudela, bere esanetan, bazetorren lehenagotik, baina batik bat pandemiaren ondoren handitu da kopurua. Animaliek asko ematen dutela uste du albaitariak: "Konpainia, kariñoa, laguntasuna, norbait zaindu beharra...Jendeak ez badu hori guztia zeini eman, animalia batek ordezkatzeko hutsune hori". Txakurrei buruz, berriz, adierazi du akaso gehiago "enpatizatzen" dutela pertsonekin, "sentimenduak adierazten dituzte, poza, tristura...". Baina albaitariak gaineratu duenez, akaso ezustekoa hartuko genuke maskota motekin lotuta, dioenez, txakurrak baino, "etxeetan, akaso, katu edo huroi gehiago dago", gertatzen dena da kaleetan txakurrak ikusten direla.



# IAZ, TXAKUR-KAKAK BATZEKO 30.000 POLTSA EMAN ZITUEN UDALAK, AURTEN, AGORTU DA KOPURU HORI

gabe esaten dute maiteago dutela txakurra inguruko pertsona asko baino.

### Denetariko zerbitzuak

Gaur egun, mundu oso bat dago txakurren bueltan. Badira txakurrendako jantziak, jostailuak, ile-apaindegiak, eskolak, aseguruak, hotelak, gimnasioak, masajistak, golosinak, manikurak, zaintzaileak (pett siterrek), hezitzaileak, txakur-haurtzaindegiak, aplikazioak, garraioa (Uber Pet)... egoteagatik, txakurrendako psikologoak egon ere badaude, txakur etologoak dira.

### Txakur-parkea eta kaka-poltsak

Inguruko zerbitzuei erreparatuta, berriz, Debabarrenean, Animalien Arretarako eta Ongizaterako zentroa dago, Eibarren. Batez beste, 125 txakur artatzen dituzte urtean, kasu gehienetan galdutako txakurrak identifikatuz eta jabeari bueltatuz (elkarrizketa aurreko orrian).

Soraluzek txakurrendako dituen zerbitzu publikoen artean, berriz, txakurrendako parkea dago Atxurin eta txakur-kakak batzeko poltsak doan ematen ditu Udalak, beste udal batzuek ez bezala.

Azken horrekin lotuta, nabarmen handitu da halako poltsen erabilera. 2022an 30.000 poltsa eman zituen Udalak (1.360 euroko aurrekontua), 2023ko lehen seihilekoan, berriz, dagoeneko ia agortu da kopuru hori. Zerbaki altua dirudien arren, batez beste, egunean, 165 poltsa erabiltzen dira, baina aldiz, herrian 729 txakur daude. Txakur bakoitzarendako egunean poltsa bana hartuz gero, 132.678 poltsa beharko lirateke. Gainera, txakur batek egunean birritan edo hirutan egiten du kaka. Beraz, poltsa kopurua oso motz geratzen da dauden beharrendako. Hain justu, gaur egun, horixe da txakurren eta gizakien arteko elkarbizitzako eragozpenik handiena: txakur-jabe askoren zibismorik eza. Herritarren kezu handienetako bat izaten da txakur-kakak eta txakur-txizak nonahi daudela. Kaken kasuan, bistakoa da. Espaloietan, kalean, bidegorrian, igogailuan... bertan lagata daude egunero txakur-kakak. Txizaren kasuan, berriz, arazoa ez da horren bistakoa. Baina kale-izkinei erreparatuz gero, agerikoak dira txakur-txizek ilundutako bazterrak.

Osterantzean, txakurrek ez dituzte eragozpen zein arazo larririk sortzen. Udaltzainburuak dioenez, ez dute txakurrekin lotutako intzidentzia larririk izaten. Are gehiago, batzuek ohikoa da kalean pertsonak baino txakur gehiago agurtzea. Azken batean, txakurrak beti hartuko zaitu ondo.

## Animalien gaineko Udak Ordenantza

Soraluzeko Udalak badu Animalien Jabetza eta Babesa eta Animalia Arriskugarrien Araubide Juridikoa Arautzen Dituen Udak Ordenantza. Horren arabera, besteak beste, debekatuta dago animaliei tratu txarrak ematea, abandonatzea edo luzaroan toki itxian edukitzea, animaliak behar beste ez elikatzea, alkohola, drogak edo botikak ematea, 14 urtetik beherakoei animaliak saltzea, ematea eta lagatzea, gurasoen edo tutoreen baimenik gabe. Debekatuta dago txakurrek parke, lorategi publiko, umeen jolasleku, kale eta, oro har, jendea dabilen lekuetan kaka egitea eta debekatuta dago kalean eta orubeetan jaten ematea usoei eta solte dabiltzan txakur, katu eta abarrek animaliei, besteak beste.

Halaber, animalien jabeek betebeharrak ere badituzte. Adibidez, animaliak norbaiti haginka egiten badio, animaliak berrogeialdia egin beharko du; txakurrek identifikatuta eta erroldatuta egon behar dute eta identifikaziorako, transponder tresna mikroelektronikoa sartu behar zaie; herrian eta leku publikoetan, txakurrak lotuta eraman behar dira eta animalia arriskugarriak muturrekoarekin.

## Txakur txikien familia handia

Maltako biltxoi eta Yorkshire arrazen arteko nahasketa da 8 urteko Kira txakurra. Jone Blanco du jabe. Orain dela urtebete, zazpi kume izan zituen, etxean. Kumeetako bat akabatu egin zen, beste bat -Nala- Jonek berak hartu zuen Kirari konpainia egin ziezaion, eta, beste bostak adopzioan eman zituen, "txakurrak ondo zainduko zituzten" pertsonei. Hiru Soraluzen bizi dira, bat Eibarren eta bat Salamancan: Gin (Gin-Tonic-engatik), India, Sana, Shadow eta Lola. India, adibidez, Joneren ahizpa Mirenek hartu zuen, "abeslariarengatik ipini nion izena", dio.

### Umea zaindu

Bi ahizpek argi diote pertsona bat bezala edo gehiago maite dituztela txakurrak,



Jone Blanco, Nala, Kira, India eta Miren, Plaza Barrixan.

"esplikaezinezko sentimenduak" eragiten dizkietela, "txakurra beti dago zurekin, beti pozik dator zuregana". Jonek katua ere badu, baina nahiago du txakurra, katuek ez baitute "ia kasurik egiten eta umeari muzin egiten diote".

Pertsonen eta txakurren arteko bizikidetzeta, beriz, erraza dela uste dute. Adibidez, Hugo umea

jaio zenetik Kira ondoan izan du, "umea ohetik ez jausteko hesi modura ipintzen zen eta umea siestatik esnatzean abisatu egiten zidan", dio Jonek. Zentzu horretan, bizilagunen aldetik txakur-jabeekiko errespetu handiagoa nahiko lukete "beti kritikatzeko ibili beharrean" eta herrian txakurrendako parke gehiago ere eskertuko lukete.

## Napoleon, txikia baina estimatua

Napoleon orain dela lau urte ekarri zuten Soraluzera, Zamorako Santa Cristina de la Polvorosa herritik. Eneka Ezenarrok eta familiak kalean aurkitu zuten txakurra, arkakusoz eta kaparrez beteta, eta, etxera eramane zuten, zaintzeko asmoz. Baina egoerari buelta ezin emanda, hiltzat eman zuten. "Animalien hilobira bota behar zutenean, arnasa hartzen zuela ikusi zuten eta albaitaria zen gure lagun baten semeak hartu egin zuten, badaezpada guri ezer esateke, txakurra osatzeko



Eneka eta Napoleon.

asmoz. Soraluzera bueltatzekotan ginela, deitu egin zigun eta han azaldu zen

Napoleonekin", kontatu du Ezenarrok.

### Beste kide bat

Gaur egun, Eneka Ezenarrokekin bizi da Napoleon. Ez dakite zein arrazakoa den, "kale txakurra" eta "formal-formala" dela bakarrik. Ezenarrok argi dio "familiako" beste kide bat dela, "baita herriko beste kide bat ere; ume, heldu... guztiek ezagutzen dute eta guztien lagun da. Gu egunero joaten gara Napoleonekin bidegorrira, Osintxuraino, 08:00etan".

### "Txakurrak izatea bizitzeko modu bat da niretzat"

Newton Jose Luqueren bosgarren txakurra da, Espainiako untxaria arrazakoa. Ehiza larriko (basurdeen...) arrastoa segitzeko erabiltzen dute. Luqueren lehenagoko txakur Dante ere ehizarakoa zen, piezak eskuratzekoa. Dena den, Luquek ez bata ez bestea ez ditu ehizarako ibili eta ibiliko.

#### **Edukazio kontua**

Newtonek 2,5 hilabete ditu eta aste eta erdi darama Luquerekin bizitzen. Lehenago Luquerekin bizi izan dira Txuri, Luna, Trust eta Dante. "Emaztearekin hasi aurretik banuen txakurra. Bizitzeko modu bat da. Gustuko dut animalia bat izan eta berarekin gozatu, paseatu... Etxera sartzean txakurrak egiten dizun arreta ikusteak ez du preziorik. Etxera gogotsu sartzen zara. Gurasoekin bizi nintzela izan nituen indiako kobayak,



Jose Luque Newton txakurra besoetan duela.

arrainak eta kardantxiloak, baina niri, batik bat, txakurrak gustatzen zaizkit", dio. Txakur bat hil izan zionean, "negar egin izan dut eta negar egingo dut. Ez dit lotsarik ematen", dio.

Pertsonen eta gizakien arteko bizikidetzari dagokionez, edukazio kontua dela uste du eta Soraluzen gizalegea falta dela uste du. Askok txakurra erabiltzen dute nahi duten moduan, solte,

txakurrekin sartzen dira sartu ezin diren lekuetara... arauak behar dira. Hor dago jabearen zeregina. Ni gaur, adibidez, 04:30ean esnatu naiz txakurrari zereginak etxetik kanpo egiten erakusteko. Esnatu eta berehala, besoetan hartu, belargunera jaitsi, egiten dituenak batu eta etxera bueltatu. Gizalege kontua da. Ni ahalegintzen naiz bizitzen ondokoari eragozpenik egiteke".

### Sei ordutik behin paseatzera ateratzen dute Lodi

Lodik 10 urte ditu eta Arrasaten jaiotako euskal artzain baten kumea da. Nekane Jauregi Manzanok ekarri zuen 2,5 hilabete zituela. Orain, batik bat, haren ama Maria Antonia Manzanok ateratzen du Lodi, berak duelako asti gehien. Sei ordutik behin paseatzen du, gauean, berriz, luzarago eusten dio. Soka, kaken-poltsa eta urarendako potoarekin dabil, ordenantzak dioena bete egin behar dela uste duelako.

Zentzu horretan, uste du herrian zibismo handia falta dela. Lodiri buruz, berriz, dio "beti" dela ona, "etxean ez du ezer apurtzen, zaunkarik ere ez du egiten, jakin ezean, inor ez da enteratzen etxean txakurrik dagoenik". Etxeko lehen txakurra da, "eta azkena", dio Manzanok, "lotura handia da, udan-eta batik bat, ezin zara egun osorako joan, adibidez". Hori bai bere umea balitz zaintzen du.



Maria Antonia eta Lodi.



## "Txakurak bete egiten zaitu, maitasuna eta konpainia eman"

Goretti Goioganaren eta Iker Mendezen laugarren galgoa da Brus. 6,5 urte ditu eta kumetan hartu zuten. Haren aurretik beste hiru galgo izan dituzte harrera modura hartuta. "Familia topatu artean, txakurak harreran har daitezke. Lehen galgoa Marcan Huella protektoratik hartu genuen, bigarrena Madrildik. Hilabete egin zuten gurean. Hirugarrenak, berriz, hiru hilabete. Oso gogorra izan zen laga beharra. Ordurako Brus hartuta genuen", dio Goioganak.

### Beti elkarrekin

"Galgoen izaera, etxean zelakoak diren ikusita... hasieran txakurrei laguntzeko hartu genituen baina gero gurea nahi



Goiogana-Mendez familia Brus txakurrarekin, oporretan.

izan genuen. Oso onak dira. Etxean ez dute molestutzen, beti bere lekuan". Goioganaren ustez, txakurren eta pertsonen arteko bizikidetzeta ona da. "Txakurak bete egiten zaitu, maitasuna eta konpainia eman;

Brus beti dator gurekin, baita oporretan ere. Bat gehiago da". Txakur-kaken kontuan, berriz, lotsagarria iruditzen zaio ez jasotzea. "Txakurra baduzu, zure ardura da. Belarretan egiten badu ere, guk jaso egiten dugu".

## "Txakurra maite egin behar da, berak zu maite zaitu"

Herriko txakurren artean, izen bitxienetako bat duena da Komo Tú. Gregorio Uribe *Gregoritoren*a da eta 12 urteko fox terrier txakurra da. Aitaren lehenagoko txakurrarengatik ipini zion izen hori: "Aita zenak tabernan (Mendatan) bi arratoi-txakur zituen. Harra zen Komo Tú eta hemea Kariño. Nik ez nituen ezagutu txakurrak, baina amari entzunda dakit izenen berri. Txakurra lortu nuenean, Komo Tú ipini nion".

### "Berak ateratzen nau"

Uribek bereziki maite ditu txakurrak. Berarentzat Komo Tú bere laguna da. "Berari esker, kalera irten behar zara bai ala bai, adibidez. Batzuetan berak



Gregorio Uribe Komo Tú txakurrarekin, zubian.

ateratzen nau ni. Bestalde, txakurra edukitzea ez da bakarrik janaria ematea. Maite egin behar da, berak zu maite zaitu. Nik, adibidez, txakurren 12 haginkada ditut, nire kulpaz, baina ez didate beldurrik

ematen". Uribek dioenez, Komo Tú joango balitz, beste txakur bat hartuko luke: "Txakurrak ez dira inoiz erosi behar, eskatu edo adopzioan hartu behar dira, txakur mordoia dago-eta abandonatuta".

# "Disfrutatzen segitzen badut, futbolean segi nahiko nuke"

**HARITZ ALBISUA** FUTBOLARIA

Amorebieta S.D. taldearekin Espainiako Futbol Ligako Bigarren Mailara igotzea lortu du Haritz Albisua soralezetarrak

Haritz Albisua Laskurain futbolariak (Soraluze, 1992) bigarren aldiz lortu du Ligako Bigarren Mailara igotzea. Lehena Lorcarekin, 2017an; bigarrena orain, Amorebietarekin.

**Iaz Amorebietarekin fitxatu zenuenean espero zenuen mailaz igotzea?**

Ez, egia esan ez. Beti amesten duzu halako zerbait egitearekin, baina Amorebietan fitxatu nuenean, talde osoa aldatu zen, 20 fitxaketatik gora izan ziren, eta, asko liga hastear zegoela iritsi ziren. Talde berri bat egiten denean, zaila da hasiera eta ez nuen pentsatzen bigarren mailara zuzenean igoko ginenik. Denboraldi hasiera oso gogorra izan zen, 7. jardunaldian azken postuan geunden.

**Taldekidetuekin zer moduz?**


Oso ondo. Dena ondo joateko, aldagelan egin genuen taldea izan da gakoa, denok joan ginen helburu beraren bila eta egindako harremanak oso onak izan dira.

**Zeuk noiz ikusi zenuen aukerak izan zenitzaketela mailaz igotzeko?**

Talde guztien kontra jokatu eta gero ikusi genuen kalitate aldetik akaso bazeudela gureak baino jokalaririk azkarragoak-edo zituen taldeak, baina guk talde moduan hobeto konpetitzen genuen. Lehen postua urruti izan arren, bigarren bueltan partida bakarra galdu dugu. Puntuak berreskuratzen joan ginen eta apirilean liderrari -Eldense- etxean irabazi genionean ikusi genuen lortu ahal genuela.

**Unerik politena? Eta zailena?**

Txarra izan zen La Nuncian jokatzera joan eta taldeko zuzendaritzako kide bati, Aitorri, bihotzekoak eman zionean. Tragikoa izan zen. Politena, berriz, azken partidaren arbitroak azken txistua jo zenean. Oso gogorrak izan ziren azken bi asteak, helburua gertu zegoen, baina ez genuen lortzen. Tentsio eta nerbio askoko egunak izan ziren eta azken partida bukatu zenean,



Haritz Albisua koparekin.

liberazioa eta poztasuna oso handiak izan ziren.

**Senideak ondoan izan dituzu uneoro, ezta?**

Bai, gertuko jendea, Oinatz, familia-eta, beti daude babesten eta, aurtun, disfrutatzen.

**Noiz arte nahiko zenuke izan futbolari?**

Gaur egun futbolariak luzaroago daude aktibo, gehiago zaintzen direlako, batik bat. Lesioek errespetatzen banaute eta disfrutatzen jarraitzen badut (entrenamenduetara joatea sufrimendu bihurtzen ez bada...), futbolean segi nahiko nuke. Atzo gauean (martitzena) C.D. Alcoyano Valentziako taldearekin fitxatu nuen.

**"ATZO GAUEAN, MARTITZENA, C.D. ALCOYANO TALDEAREKIN FITXATU NUEN"**

# Bi txapelketa irabazita



Soraluzeko Pilota Elkartek jaialdi bete egin zuen denboraldia agurtzeko. Pilotariak finalak eta elkarren arteko partidak jokatu ondoren, merendola izan zuten,

Mendizabal okindegiaren, Okelia harategiaren eta Egozako gaztaren eskutik. Borobiltzeko, pilotari guztiei eman zizkieten garaikurrak.

**Datorren urtean Ohorezko mailan** Denboraldiak emandakoari dagokionez, berriz, bi txapelketa irabazi eta beste hirutan txapeldunorde izan dira Soraluzeko Pilota Elkarteko pilotariak. Txapeldun izan dira Euskal Herriko Txapelketan, eskuz binakako nagusien mailan, eta txapeldunorde eskuz banaka Euskal Ligan. Debarroko txapelketan txapeldun izan dira jubenilak eta nagusiak, berriz, txapeldunorde. Halaber, Gipuzkoako txapelketan ere izan dira txapeldunorde, eta horri esker, datorren denboraldian Ohorezko mailan jokatuko dute Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketetan.

# Hockeya gero eta indartsuago



Ekainaren 23an, barikua, 2022-2023 denboraldia agurtu zuen Marras Irristaketa Taldeak. Irristaketa zein hockeya herritarrekin partekatuzko,

kalejira, irristaketa saioak eta hockey tiroak egin zituzten kalean. Denboraldia bikain ixteko, domina bana eman zieten Marraseko partaide guztiei eta

iragarri zuten datorren urtean hockeya bizi-bizi izango dela eta interesa duen edozein batu daitekeela taldera.

## Etengabeko hazkundera

2019an sortu zenetik etengabe handitzen joan da Marras Irristaketa Taldea. Gaur-gaurkoz, bost mailatan dituzte taldeak, guztiak mistoak, eta 2014tik 2007ra arteko 45 bat jokalaria ditu, horietatik bik, gainera, Euskal Selektzioarekin jokatu dute. Horrez gain, Soraluzen, emakumezko ekipoa duen talde bakarra da Marras; besteak beste, emakumezkoak 2022-2023 denboraldian Euskal Ligan lehiatu dira.





Bergarako zezenak iaz San Andresen.

# San Andresko jaiak ate joka

Uztailaren 8an, 9an eta 10ean ospatuko dira San Andresko jaiak. Nobedade nagusiak zapatuan: tortila lehiaketa eta zezenak.

San Andresko jaien egitarauaren zatirik handiena ohikoa izango bada ere, badira zenbait nobedade, batez ere, zapatuan. Aurten, eguerdian ez dute azokarik egingo eta horren partez, tortila lehiaketa egingo

dute, parte hartu nahi duen guztiei irekita. Bigarren aldaketa arratsaldekoa izango da, azken urteotan domeka arratsaldean ekarri izan dituzten Bergarako zezenak orduan ekarriko dituztelako.

## Egitarau nagusia

### Uztailak 8, zapatua

12:00etatik 14:00etara  
Patata tortilla lehiaketa irekia.

17:30ean Pelota

Txapelketako partiduak.

19:00etan Bergarako zezenak.

21:00etan Herri-afaria eta ogitartekoak.

00:00etan Erromeria Izer eta Alabierrekin.

### Uztailak 9, domeka

13:00etan Meza.

Egun guztian zehar Aitor Mendiluze eta Agin

Laburu bertsolariak eta Mendotz eta Bizkai

trikitilariak.

13:30ean Eskuz binakako pelota partiduak.

18:30ean Herri kirolak.

Harri jasotzen: Paulo Azpiazua eta Hodei Izeta.

Pentsatloia: Izeta V.a eta

VI.a.

19:30ean Bola premia.

## Bertso eskolako gaztetxoaren sua

Ekainaren 23an, bertso eskolako gaztetxoek (Zuhaitz, Aitz, Asier, Laida, Khadija eta Markel) koplak kantatu zituzten plazan, Udateko gaueko suaren bueltan. Esaterako, hau: "Udara iritsi da, zelako luxua! koadernoak sutara, arindu pisua. Sorgin salda magiko, edabe goxua, parranda ospatzeko piz dezagun sua!".



# Musika eskaintza zabala jaietan

Jaietako kainoikada 24an jaurtiko bada ere, jaiak 21ean abiatuko dira zubiko txosnetan. 22an ere ekitaldi ugari antolatu dira.

Aurtengo jaiak egutegi berezi samarra izango dute, izan ere, jai egun nagusiak, uztaillaren 25a eta 26a, erreferentziatuz hartuta, kainoikada 24an jaurtiko da baina jaiak 21ean (barikua) abiatuko dira pilota partida eta Zubiko txosnaguneko kontzertuekin (Lukiek). 22an, egitarau zabala izango da: pilota txapelketaren finala, Galtzagorrien bazkaria, tekno jaialdia, elektrotzaranga, txosnaguneko kontzertuak eta Ohian Vegaren emanaldia Plaza



Gozategi taldea.

Zaharrean. 23an, egitarau lasaia: umeen krosa, gazta dastaketa, kantujira eta bertso saioa. Hurrengo egunetan, nabarmentzekoak dira Muzak taldearen kontzertua 24an eta Gozategirena 25ean.

**Galtzagorrien 20. urteurrena**  
Aurten hogeitau urte beteko dira Galtzagorrien Jai Batzordea eta txaranga sortu zirela eta ospatzeko, 22an, bazkaria egingo dute Kalebarrenen. Bertara urteotan batzordearen parte hartu duten herritarrek gonbidatuko dituzte, baina azpimarratu dute bazkaria irekia izango dela edozeinentzat. Horrekin batera, batzordeak kamiseta berriak kaleratuko ditu eta dagoeneko zabalik dago diseinua hautatzeko bozketa Plaentxia. eus-en.

**Txoko**  
Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgeriak, ogitarteak, ogitarteak, radiak, pizzak, goxaria...  
Eskerak egiten dira  
Tel. 943 75 17 00

**Soraluzeko Kooperatiba Elkartea**  
190etik rakiak  
Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua  
Astelehenetik ostiralera: 09:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunbata: 09:30 - 13:00  
Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45

**ARRANO**  
taberna  
Etxeri eta goxari etxeko pintxoak  
Etxaburueta 6

**Carpinteria MANU Aroztegia**  
Atariak, Bantoiak, Patekoiak, Sukaldeak, Tamiak  
Manuel C. Fuentes  
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25

**TXURITXU GOZOTEGIA**  
Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Larunbata: 08:30-13:00  
Gosariak, oja, premsa, pastelik, borbolik...  
Etxera eramateko zerbitzua  
Tel. 943 75 24 43

**HNOS. BENITO ANAIK**  
MUEBLES-ALTZARIK  
Sukaldeak, logelak, egongelak, neurria egindako altzariak...  
Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

**Criado**  
Fruitategia Urdaitegia  
- Eskerak Whatsapppe  
- Etxerako zerbitzua  
- Berriak & delicatessen  
Astelehenetik ostiralera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbata: 09:00-13:00  
629 958 536

**Belarrak**  
loru eta belardendak  
Elkagai ekologikoak  
Etxerako zerbitzua  
Santa Ana 22  
943 75 30 11

**SORALUZE MOTOR**  
Mendiola ind. 13  
Soraluze  
576 556 817 - 943 75 21 38  
Icons representing various services and products.

# Jesus Arruabarrena 'Nino'

SORAKO SORTZAILE, FAGORREKO KOMERTZIAL ETA DIARIO VASCOKO KAZETARI

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: JESUS ARRUABARRENA 'NINO'

---

Bizitza intentsoa izan du Jesus Arruabarrena *Ninok* (Bergara, 1948), denetik egin baitu. Gaztetan, Bergarako futbolari izan zen, Olabideren, Pardinaren, Akizuren, Abajoren, Uritxaren, San Vicenteren, Javier Garateren... garaian. Soraluzera ezkondata, Soraren sortzaileetako bat izan zen, baita presidente-orde zein entrenatzaile ere. Bestalde, bi urtez, Soraluzeko Pilota Elkarteko pilotari gazteen entrenatzaile fisikoa ere izan zen. Hori guztia afizioz egin zuen. Ofizioz, Fagor Taldeko komertziala izan zen. Eta kazetari ere izan zen, Diario Vascon.

**Goitizena futboletik**

Afizioari dagokionez, futbola bihotzean darama Jesus Arruabarrenak. *Nino* goitizena bera ere futboletik datorkio. Bergarako jokalaria zela, Zaragozako lehen mailako taldera Saturnino Arrua (Nino Arrua) futbolari paraguitarra iritsi zen. Arruabarrenak haren posizio eta zenbaki berarekin jokatzaren zuen eta abizenaren hasiera ere berbera zuten. Hortik ipini zioten taldekideek *Nino*.

**Futbol taldearen sortzaileetako bat**

Soraluzera ezkondata, 29 urterekin, Soraluze Futbol Taldearen sortzaileetako bat izan zen. Harekin batera,

sorrera hartan ibili ziren Jose Luis Larrañaga *Txirri* presidentea, Juan Inazio Alberdi, Moises Altuna, Rafa Plazaola, Alberto Berraondo, Oscar Gabilondo, Jesus Mari Gallastegi *San Mames*, Vicente Lombide, Asis Treviño... "Nor bait ahaztu bazait, barkatu. Kontua da Larrañaga, Juan Inazio, Altuna eta neu Mahastian elkartzen ginela, afaltzera-eta. Soraluze moduko herri batek futbol talderik ez izatea harrigarria zen guretzat. Are gehiago, kontuan hartuta XX. mende hasieran eta erdian indar handia izan zuela futbolak herrian. Besteak beste, frontoian futbol txapelketak jokatzaren ziren. Harrobia



Gipuzkoako txapeldunak, Jesus Arruabarrena Nino entrenatzaile zela.



bazegoela pentsatuz, 2. Erregional mailarako taldea sortzeko aukera ikusi zen. Lanean hasi eta taldea sortu genuen (argazkian). Lehen urtean, Igoera faseko finala irabazi genuen Abetxukoren kontra. Udalak ongi-etorria eta guzti egin zigun. Entrenatzailea Aizpiri alias *Borono*" zen.

**Mailari eutsi**

Hurrengo urteetan, Soraluze Futbol Taldea sendotu egin zen, herrian futbol zelaia eraikitzeraino, Ezozi auzoan: "1977tik-1980ra 80.000 pezeta ordaintzen genion Mendaroko Kilimoni astean behin entrenatzearren eta hamabostean behin partida jokatzearren. 1981ean, Jesus Mari Akizu alkate zela eta Miguel Angel Oregi Sorako presidente zela, inauguratu zuten Ezoziko futbol zelaia, Carlos Garaikotxea lehendakaria etorri zen".

Arruabarrenak 1992ra arte segitu zuen Soran. 1985etik 1992ra izan zen entrenatzaile. 10-12 urtekoekin hasi eta Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten Zumaian. Lorpen hori da *Ninok* bihotzean gordeen duena.

1987an, berriz, Kepa Prieto presidente zela, *Ninok* Erregional mailako taldea hartzea nahi izan zuten. Arruabarrenaren gidaritzapean, 1987-88an bosgarren geratu ziren eta 1988-1989an Igoera faserako sailkatu ziren. Baina finala Lesakan jokatu eta modu ez bidezkoan galdu ondoren, disgustu-haserre horrekin, *Ninok* laga egin zuen taldea. Hurrengo urtean, Sora jaisteko puntuan egon zen, baina pare bat urte geroago, Iñigo Placencia presidente zela, berriro ere eskatu zioten Arruabarrenari talde nagusiaren ardura hartzeko, mailari eutsi ziezaion. 1991-1992. denboraldiaren

amaiera zen; *Ninok* onartu eta Sorak mailari eustea lortu zuen, Groseko taldearen kontra etxean 2-0 irabazi eta Donostian 1-2 irabazi ondoren. Gainera, Soraluzeko partidari harmailak bete egin ziren, kanpoko jendea ere etorrita. Lorpen hori poltsikoan, orduan bai, behin betiko laga zuen Arruabarrenak Sora.

**Komertzial eta kazetari**

Ofizioari dagokionez, berriz, 1967tik 2014an Fagor Etxetresnak itxi zuten arte, Fagor Taldeko komertziala izan zen Arruabarrena. Ofizio horri esker, Europa eta Espainia guztian ibilitakoa da. Lanbide horrekin gutxi ez, eta kazetari lanak ere egin zituen. 12 bat urtez, Diario Vascon Soraluzeko kronika idazten ibili zen. Kazetaritzari laga egin zion Nerea Isastik erreleboa hartu zionean, Alberto Sodupe Soraluzeko alkate zela.



Arruabarrena Sorako kamiseta berriarekin.



Ninok berriro kargua hartu zueneko.



Iturripen, Abetxukoren kontrako partidari.

## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Santos Elizburu eta Idurre Blanco**  
Maiatzaren 4an eta 6an, 72 eta 8 urte. Zorionak etxekoan partetik!



**Lide Sodupe Ostolaza**  
Uztailaren 1ean, 13 urte. Zorionak Lide! Etxeko guztien partez.



**Paule Oñederra Ostolaza**  
Ekainaren 25ean, 8 urte. Zorionak Pauletxo etxeko guztien partez!!!

### JAIOBERRIAK



**Alai Mendia Sanchez**  
Maiatzaren 11n jaio zen.



**Kattalin Sopude**  
Ekainaren 8an, 9 urte. Zorionak Plaentxiko familiaren partez.



**June Sodupe Agirre**  
Maiatzaren 23an, 4 urte. Zorionak etxeko formalenari!!!






**Ibai Soriano Sebal**  
Ekainaren 27an, 4 urte. Zorionak rubio! Pila bat maitxe zaitxugu danok, Ibai. Patxo asko, ta bat berezi-berezixa Perun partez.



**Zalao Garcia Rodriguez**  
Ekainaren 24an, 15 urte. Zorionak polibxori, Jarraitxu orain arte bezela, izugarri maitxe zaitxugu. Sara eta Julenen partez.



**Laila Gallastegi Nogales**  
Ekainaren 23an jaio zen.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Asociación de Administradores de Empresas de Vizcaya</p>  <p><b>ROSA M<sup>a</sup> PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Nire komunitatean, instalazio elektriko guztia aldatuko dugu, eraikuntzak berrogei urte baino gehiago dituelako eta oso baldintza txarretan dagoelako. Bertako lokal baten jabea naiz, eta jakin nahi nuke gastu horien ordainketan parte hartu behar dudan.</b></p> <p>Lokal baten jabea zarenez, instalazio elektrikoaren egokitzeko gastuetan laguntzeko betebeharrak argia eta erabatekoa duzu. Ulertzen dut eraikineko instalazio elektriko orokorraz ari zarela. Elementu komuna da, eta jabe guztiek hartzen dute parte gastuan, partaidetza-kuotaren edo estatutuaren ezarritako irizpideen arabera. Logikoa da, hainbeste denbora igaro ondoren, higiezin guztietan egokitzapenak egin behar izatea, egungo legedira moldatzeko eta une bakoitzean eskatutako baldintza administratiboak betetzeko, higiezin bakoitzak dituen instalazio komunak kontuan hartuta.</p> <p><b>ONDORIOA:</b> Eraikinaren instalazioen eta elementu komunaren amortizazioari dagokionez, instalazioak osorik edo zati batean berritu behar badira, eta, zehazki, instalazio elektrikoari dagokionean, eraikinaren jabe guztiek ordaindu behar dituzte gastuak.</p> <p> <b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	---

ESKELAK

ESKELA
<h2>Maria Jesus Elgeta Labiano</h2> 
2023ko ekainaren 21ean hil zen 65 urte zituela
<p>Zerua grisa den egun batez azkarregi joan zara, guretzat beti zenituen prest bi muxu ta besarkada. Emakume alaia, umoretsua. Agurtzerik baldin bada, muxu haundi bat lagunengandik partez.</p>
Txaro, Ana eta Rosa

ESKELA
<h2>Maria Jesus Elgeta Labiano</h2> 
2023ko ekainaren 21ean hil zen 65 urte zituela
<p>"Eguzki eder joan guztien argia baitu bihotzak eta begien mila ernegai iraganaren oroitzak"</p> <p>Familia osoari doluminak eta besarkadarik goxo eta sendoena. Zuen ondoan izango gaituzue.</p>
Galtzagorri Txarangako lagunak

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

- Elias de Castro Aparicio
- Purificacion Salguero Carroza
- Jose Maria Soraluze Murgoitio
- Maria Angeles Oregui Juaristi
- Maria Jesus Elgeta Labiano
- Oier Garmendia Oregi
- Maria Jesus Idigoras Gallastegi

**Jaiotakoak**

- Elaia Tello Garitagoitia
- Jon Azula Motrel

OHARRAK

**1978an jaiotakoen kintada**

Ekainaren 10ean ospatu zuten Txurrukan.





bertako

igogailuak | ascensores

**HARRO!**

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)



# GOKI

erreformak



## FATXADA BIRGAITZEAK

**S.A.T.E.**

FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



## ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42